# Administrarien Eskalako Lan-poltsa.

## INFORMAZIO OSAGARRIA

AZPkoen Hautaketa eta Hornikuntzan jaso diren eskaerak direla eta, Administrazio Eskalako lan-poltsako azken deialdietan jarritako ariketak argitaratu dira.

Gogorarazi beharra dago azterketa horiek ez daudela eguneratuta eta epaimahaia, azterketa osatzerakoan oinarriek, gai zerrendak eta lanpostuen eginkizunek beste loturarik ez duela eta, beraz, deialdi honetako ariketak aurrekoak ez bezalakoak

iza

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# ADMINISTRARIEN ESKALA

A Eredua

BEC, Barakaldo.
2008ko ekainaren 7a

1 ESPAINIAKO KONSTITUZIOKO 1.1. ARTIKULUAREN ARABERA, ESPAINIA

1a) Estatu liberala da
1b) Estatu formala da
1c) Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikoa da
1d) Estatu monarkikoa da

2 KONSTITUZIOKO 1.2. ARTIKULUAK HURRENGOA XEDATZEN DU:

2a) Subiranotasun nazionala herriak du
2b) Subiranotasun nazionala Parlamentuak du
2c) Subiranotasun nazionala erregeak du
2d) Subiranotasun nazionala Gobernuak du

3 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUTONOMIA-ESTATUTUAN

3a) Euskara hizkuntza autoktono gisa izendatzen du
3b) Euskara berezko hizkuntza gisa izendatzen du
3c) Euskara hizkuntza ideologiko gisa izendatzen du
3d) Euskara hizkuntza bakar gisa izendatzen du

4 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERAKUNDE KOMUNETARAKO EGOITZA IZENDATZEA

4a) Autonomia Estatuan bertan agertzen da
4b) Eusko Jaurlaritzaren Dekretu bidez egin ohi da
4c) Eusko Legebiltzarreko Legearen bidez egin ohi da
4d) Lege Dekretu bidez egin ohi da

5 AUTONOMIA-ESTATUTUA

5a) 1979koa da
5b) 1980koa da
5c) 1981ekoa da
5d) 1978koa da

6 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOA ONDOKO PRINTZIPIO HAUEN INGURUAN EZARTZEN DA

6a) Eginkizunak betetzerakoan eraginkortasun eta objektibotasun printzipioak.
6b) Eginkizunak betetzerakoan inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak.
6c) Eginkizunak betetzerakoan objektibotasun eta profesionaltasun printzipioak.
6d) Eginkizunak betetzerakoan eraginkortasun eta profesionaltasun printzipioak.

7 ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAN AURREIKUSITAKOARI JARRAIKI, HURRENGO ARGIBIDEEN ARTEAN, ZEIN AGERTU BEHARKO DA DERRIGORREZ LANPOSTU ZERRENDETAN?

7a) Hizkuntza-eskakizuna eta berorren derrigorrezkotasun-data.
7b) Hitzarmen aplikagarria.
7c) Ordainsari osagarriak.
7d) Dedikazio-erregimena

8 **HURRENGOEN ARTEAN, ZEIN KOLEKTIBORI EZ ZAIO EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN UZTAILAREN 6KO 6/1989 LEGEA ZUZENKI EZARTZEN**

8a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzura dagoen pertsonalari.
8b) Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Erakunde Autonomoen zerbitzura dagoen pertsonalari.
8c) Eusko Legebiltzarraren zerbitzura dagoen pertsonalari.
8d) Foru eta Tokiko Administrazioaren zerbitzura dagoen pertsonalari.

9 **ENPLEGATU PUBLIKOAREN OINARRIZKO ESTATUTUAN, LANPOSTUEN ZERRENDETAN, GUTXIENEZ, ONDOKOAK AZALDU BEHARKO DIRA**

9a) Dedikazio-erregimena.
9b) Hizkuntza-eskakizuna eta derrigorrezkotasun-data.
9c) Taldearen oinarrizko ordainsariak.
9d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

10 **HURRENGO BAIEZTAPEN HAUEN ARTEAN GEZURREZKOA ZEIN DEN ADIERAZI**

10a) Interes partikularreko borondatezko eszedentzia egoerarako eskaera egin ahal izateko, azken 5 urteetan, gutxienez, edozein Administrazio Publikotan zerbitzuak eskaini izana derrigorrezkoa izango da.
10b) Borondatezko eszedentzia egoeran egindako aldia hirurtekoen eta eskubide pasiboen ondorioetarako kontuan hartuko da.
10c) Borondatezko eszedentziak ez du lanpostua gordetzea ekarriko.
10d) Interes partikularreko borondatezko eszedentzia ezin izango da eman funtzionarioari diziplinako espedientea ireki bazaio.

11 **ADMINISTRAZIO EGINTZAK ERABAT BALIOGABETU ETA EGINTZEN BALIOGABETASUNARI DAGOKIONEZ, AUKERA EZAZU ERANTZUN ZUZENA:**

11a) Erabat baliogabeak dira, legeak ezarritako beste batzuen artean, arau-hauste penal baten ondorioz gauzatu diren Herri Administrazioetako egintzak.
11b) Forma-akatsak egintza baliogabetuko du.
11c) Administrazio jarduerak haientzat ezarritako epeaz kanpo burutzen badira, egintza baliogabetuko da.
11d) Administrazio egintzaren parte bat deuseztatu edo baliogabetzeak ez die harengandik burujabe diren beste parteei eragiten.

12 **HONAKOAK ZIODUNAK IZANGO DIRA, ZUZENBIDE EGITATEAK ETA OINARRIAK LABUR AIPATZEN DITUZTELARIK:**

12a) Xedapena edo administrazio egintzak ofizioz berraztertzeko prozedurak amaitzen dituzten egintzak.
12b) Aholkularitza organoen ebazpenetik at daudenak.
12c) Premiazko tramitazioa aplikatzeko edo epeak luzatzeko akordioak.
12d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

13 **ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEARI LOTUTAKO HERRI ADMINISTRAZIOEN EGINTZEN ERAGINKORTASUNARI DAGOKIONEZ, AUKERA EZAZU ERANTZUN ZUZENA:**

13a) Administrazio Zuzenbideari lotutako Herri Administrazioetako egintzak baliozkoak dira eta ebatzitako egunetik hasita betearaziko dira.

13b) Inolaz ere ez da administrazio egintza baten eraginkortasuna atzeratuko.

13c) Administrazio egintzak argitaratuko dira prozedura bakoitzeko arauek hala ezartzen dutenean edo eskudun organoak prezatu dituen interes publikoko arrazoiek hala aholkatzen dutenean.

13d) Inolaz ere ez zaie administrazio egintzei atzera-eraginezko izaera emango baliogabetutako egintzen ordez ebazten badira.

14 **ADMINISTRAZIO EGINTZEN ARGITALPENARI DAGOKIONEZ, AUKERA EZAZU ERANTZUN ZUZENA:**

14a) Administrazio egintza baten argitalpenak jakinarazpenei eskatzen zaizkien ezaugarri berberak izan beharko ditu, bestela ezartzen ez bada.

14b) Inolaz ere ezin da hainbat egintzetan bat datozen alderdiak argitaratu, elementu komunak badituzte ere.

14c) Elementu komunak dituzten egintzak argitaratzen badira, bat datozen alderdiak batera argitara daitezke eta egintza bakoitzaren alderdi bereziak soilik aipatu.

14d) a), b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

15 **ADMINISTRAZIO EGINTZAREN FASEEI DAGOKIENEZ, AUKERA EZAZU ERANTZUN EGOKIA:**

15a) Prozeduraren edozein unetan interesatuek alegazioak egin eta dokumentuak edo balizko beste elementu batzuk ekarri ditzakete.

15b) Interesatuek bete beharreko tramiteak hamabost egunetako epean egingo dira egintza jakinarazitako egunetik hasita, dagokion arauak beste epe bat zehazten ez badu.

15c) Administrazioak interesatuei zazpi egun lehenago jakinaraziko die onartutako probak egiteko beharrezkoak diren jardueren hasiera.

15d) Kontrakoa xedatzen ez bada, txostenak borondatezkoak izango dira eta ez lotesleak eta hamar egunetako epean egingo dira, xedapen batek edo gainerako epeak betetzeak epe handiago edo txikiago bat eskatu edo ahalbidetzen ez badu.

16 **ADMINISTRAZIO EGINTZEN EPEEI DAGOKIONEZ, AUKERA EZAZU ERANTZUN ZUZENA:**

16a) Berraztertzeko errekurtsoaren ebazpena eman eta jakinarazteko epea hilabete batekoa da.

16b) Berraztertzeko errekurtsoaren ebazpena aurkezteko epea hilabete batekoa da, egintza esanbidezkoa bada eta bi hilabetetakoa ez bada.

16c) Ezohiko berraztertze errekurtsoa aurkezteko epea lau urtetakoa edo bi hilabetetakoa izango da, dagozkion baldintzen arabera.

16d) Gorago jotzeko errekurtsoa aurkezteko epea hilabete batekoa da, egintza esanbidezkoa bada eta bi hilabetetakoa ez bada.

17 **PARTIKULARREK, ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ONDASUNEN EDO ESKUBIDEEN KALTEEN KASUAN**

17a) Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea edukiko dute soilik funtzionamendua ezohikoa izan bada eta ezinbesteko kasuan salbu.
17b) Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea edukiko dute funtzionamendu normalagatik edo ezohikoagatik, ezinbesteko kasuan salbu.
17c) Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea edukiko dute, eskumeneko jardunen kasuan salbu.
17d) Ez dute kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

18 **ADMINISTRAZIOAREN ONDARE-ERANTZUKIZUNAREN PROZEDURA HONELA HASIKO DA**

18a) Ofizioz.
18b) Interesdunen erreklamazio bidez.
18c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.
18d) Ofizioz, soilik beste Administrazio bati egindako kalteen kasuan, eta interesdunen erreklamazio bidez gainerako kasuetan.

19 **ONDARE-ERANTZUKIZUNA ERREKLAMATZEKO ESKUBIDEA PRESKRIBATU EGINGO DA**

19a) Erreklamazioa aurkeztu eta urtebetera.
19b) Ondasunei egindako kalteei dagokienez, horiek sortu zituen egintza gertatu zenetik urtebetera.
19c) Pertsonei eragindako kalte fisikoei eta psikikoei dagokienez, ez da sekula preskribatzen.
19d) Pertsonei eragindako kalte fisikoei dagokionez, sendatu eta urtebetera eta kalte psikiko iraunkorren kasuan, ez da sekula preskribatzen.

20 **ONDARE-ERANTZUKIZUNAREN KASUAN, ADMINISTRAZIOA DA ERANTZULEA**

20a) Zuzenean haren zerbitzura dauden agintaritzek sortutako kalteengatik eta zeharka langileek sortutakoengatik.
20b) Zuzenean agintaritzek eta haren zerbitzura dauden langile-mota guztiek sortutako kalteengatik.
20c) Zuzenean agintaritzek eta langile funtzionarioek sortutako kalteengatik, baina ez lan-kontratudun langileek sorturikoengatik.
20d) Zeharka agintaritzek eta langile funtzionarioek sortutako kalteengatik, baina ez lan-kontratudun langileek sorturikoengatik.

21 **ERREGIMEN OROKORRAREN APLIKAZIO-ESPARRUAN BARNE HARTUTAKO LANGILEEK ESKUBIDE OSOA IZANGO DUTE ALTA EGOERAN, NAHIZ ETA HAIEN ENPRESABURUAK BERE BETEBEHARRAK EZ BETE:**

21a) Gaixotasun arruntagatiko osasun-laguntzari dagokionez
21b) Lanez kanpoko istripuagatiko aldi baterako ezintasunari dagokionez
21c) Lanez kanpoko istripuagatiko ezintasun iraunkorrari dagokionez
21d) Amatasun-laguntzari dagokionez

22 **KONTRAKO FROGARIK EGOTEN EZ BADA SALBU, LANEKO ISTRIPUTZAT HARTUKO DIRA LANGILEAK LANTOKIAN ETA LANALDIAN IZATEN DITUEN LESIOAK. HALA ERE, EZ DIRA LANEKO ISTRIPUTZAT HARTUKO:**

22a) Lanbide-zuhurtziagabekeria, lanaren eta lanak ekartzen duen konfiantzaren ondorioa dena.
22b) Enpresaburuaren, istripua izandakoaren lankide baten edo hirugarren baten erruduntasun zibila edo kriminala.
22c) Istripua izandako langilearen dolua edo zuhurtziagabekeria.
22d) Langileak enpresaren funtzionamendu onerako nahita egindako lanak.

23 **ZEIN DA ORDAINSARIRIK JASO GABE BETEBEHAR PUBLIKOAK BETETZEN DITUEN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ERREGIMEN OROKORREAN ALTA EMANDA DAGOEN LANGILE BATEN GIZARTE SEGURANTZAREN GERTAKIZUN ARRUNTEI DAGOKIEN KOTIZAZIO-OINARRIA?**

23a) Ez dago Gizarte Segurantzaren kotizaziorik egoera horretan.
23b) Betebehar publikoak egin aurretik kotizatutako oinarria.
23c) Indarrean dagoen gutxieneko kotizazio-muga
23d) Langilearen lanbide-kategoriaren taldeari dagokion gutxieneko kotizazio-oinarria.

24 **EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN LEGEA**

24a) 2004koa da
24b) 2005ekoa da
24c) 2006koa da
24d) 2003koa da

25 **EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN LEGEA**

25a) 2004an sartu zen indarrean
25b) 2005ean sartu zen indarrean
25c) 2006an sartu zen indarrean
25d) 2007an sartu zen indarrean

26 **EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN LEGEA**

26a) Gasteizko Legebiltzarrak onartu zuen
26b) Eusko Jaurlaritzak onartu zuen
26c) Diputatuen Kongresuak onartu zuen
26d) Madrileko Gobernuak onartu zuen

27 **UPV/EHUKO ESTATUTUAK ONARTU ZIREN**

27a) 2003ko Dekretuz
27b) 2004ko Dekretuz
27c) 2005eko Dekretuz
27d) 2006ko Dekretuz

28 **UPV/EHUKO ESTATUTUEK TITULU BAT DUTE HONAKO IZENPEKOAREKIN**

28a) «Unibertsitate ekintzarena»
28b) «Unibertsitatearena»
28c) «Unibertsitateko jarduerarena»
28d) «Unibertsitatearena eta bere ingurunearena»

29 **UPV/EHUKO ESTATUTUEN ARABERA, UPV/EHU BARRUAN ORGANO KOLEGIATUAK EDO PERTSONABAKAR ESPEZIFIKOAK SORTU AHAL IZANGO DITU**

29a) Gobernu Kontseiluak
29b) Gizarte Kontseiluak
29c) Klaustroak
29d) Eskumeneko Ministerioak

30 **UPV/EHUKO GIZARTE KONTSEILUAK**

30a) Arauzko ahalmena erabiltzen du UPV/EHUko Estatutuen garapen eta aplikazio arauak onartuz
30b) Bere funtzioak hobeto betetzeko komenigarriak iruditzen zaizkion Batzordeak osatuko ditu
30c) Unibertsitate-campus berriak sortzen ditu
30d) Aurrean aipaturiko funtzioetako bat ere ez da Gizarte Kontseiluarena

31 **IKASTETXEEN BETEBEHARRA EZ DA**

31a) Zentroan hizkuntza planifikazio orokorra onartzea
31b) Izaera zientifikoko jarduerak sustatzea
31c) Ezagutzako alor bat edo batzuen irakaskuntza koordinatu eta ematea
31d) Urteko memoria lantzea

32 **FAKULTATE BAT SORTZEKO PROPOSAMENAREN HASIERAKO ONESPENA**

32a) Gobernu Kontseiluari dagokio
32b) Fakultate-batzordeari dagokio
32c) Errektoreari dagokio
32d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio

33 **FAKULTATE BAT SORTZEKO HASIERAN ONARTUTAKO PROPOSAMENA BIDALIKO ZAIO**

33a) Gobernu Kontseiluari
33b) Gainontzeko fakultateei
33c) Gizarte Kontseiluari
33d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari

34 **IKASTETXEAK**

34a) Gobernu Kontseiluak egindako Araudi batez zuzenduko dira
34b) Zentroko Batzordeak egindako Araudi batez zuzenduko dira
34c) Campuseko Batzordeak egindako Araudi batez zuzenduko dira
34d) Klaustroak egindako Araudi batez zuzenduko dira

35 **UPV/EHUKO IRAKASKUNTZA ETA IKERKUNTZA LANGILERIA, UNIBERTSITATEKO ESTATUTUEN 26. ARTIKULUAREN ARABERA, OSATZEN DUTE**

35a) Unibertsitateko ikerlari-irakasleriako funtzionarioek
35b) Ikerlari eta irakasleek
35c) Unibertsitateko irakasleen funtzionarioak eta kontratatutako langileek
35d) Funtzionario iraunkor eta bitartekoek

36 **UNIBERTSITATE-ESKOLAKO IRAKASLE TITULARRAK**

36a) Honez gero ez dira existitzen eta desagertu egin dira
36b) Bitarteko funtzionarioak dira
36c) Irakasle kontratatu iraunkorrak dira
36d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak

37 **UNIBERTSITATE-ESKOLAKO KATEDRADUNAK**

37a) Ez dira existitzen
37b) Bitartekoak dira Unibertsitateko Katedradunak bihurtu arte
37c) Irakasle kontratatu iraunkorrak dira
37d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak

38 **IRAKASLE TITULAR KOLABORATZAILEAK**

38a) Ez dira existitzen
38b) Denbora partzialeko kontratua dute
38c) Bitarteko irakasle titularrak dira
38d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak

39 **JUBILAZIOA**

39a) AZLentzat derrigorrezkoa izango da langileak hirurogeita lau urte betetzerakoan
39b) AZLentzat derrigorrezkoa izango da langileak hirurogeita hiru urte betetzerakoan
39c) AZLentzat derrigorrezkoa izango da langileak hirurogei urte betetzerakoan
39d) AZLentzat derrigorrezkoa izango da langileak hirurogeita bost urte betetzerakoan

40 **BORONDATEZKO JUBILAZIOA**

40a) Administrazio eta aldi baterako zerbitzuetako langileentzat galarazita dago
40b) Administrazio eta funtzionario zerbitzuetako langileentzat da soilik
40c) Administrazio eta bitarteko funtzionario zerbitzuetako langileentzat da soilik
40d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak

41 **UPV/EHUKO LANGILEEN LAN BALDINTZEN ERREGULAZIO AKORDIOAREN APLIKAZIO EREMUAN SARTUTA DAUDEN LANGILEEK**

41a) Ezin dute ikasketa lizentziarik eskatu
41b) Ezin dute aitatasun lizentziarik eskatu
41c) Ezin dute istripu-lizentziarik eskatu
41d) Ezin dute gaixotasun kronikoak dituzten senitartekoak zaintzeko baimenik eskatu

42 **61 URTEREKIN AURREJUBILATU NAHI DUTEN ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZU IKASKETAK DITUZTEN LANGILE FUNTZIONARIOEK**

42a) Hamalau hileko kalte-ordainerako eskubidea dute
42b) Hamabost hileko kalte-ordainerako eskubidea dute
42c) Hamar hileko kalte-ordainerako eskubidea dute
42d) Antzinatasunaren araberako kalte-ordainerako eskubidea dute, baina ez da lau hilekoa baino altuagoa izango

43 **UPV/EHUREN AURREKONTUA**

43a) Biurtekoa izango du
43b) Hiru urtekoa izango da
43c) Urtekoa izango da
43d) Bifasikoa izango da

44 **EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN LEGEKO 104. ARTIKULUAN JASOTA DAUDEN UPV/EHUREN AURREKONTUAREN EZAUGARRIAK DIRA**

44a) Publikoa, bakarra eta orekatua izango dela, eta bere diru-sarrera eta gastu osoak jasoko ditu
44b) Publikoa, eta orekatua eta solidarioa izango dela
44c) Askia, zabala eta malgua izango dela, eta kontabilitateko mugimendu osoak jasoko ditu
44d) Barnekoa, aniztuna eta orekatua izango dela.

45 **ZEIN DA OKERRA**

45a) UPV/EHUko Urteko Aurrekontuan diru-sarrerei dagokien zifrak arrazoitutako estimazioetan oinarrituta ezarriko dira
45b) Gastuei dagokien zifrak gertatutako datu erreal eta egiazkoetan oinarrituta ezarriko dira
45c) Euskal Autonomi Erkidegoko adostutako ohiko diru-laguntza globala izango da
45d) Ekitaldiko aurrekontua ejekuzio oinarri batzuk lagundu behar dute

46 **UPV/EHUREN BEREZKO PREBENTZIO ZERBITZUAREN HELBURU ETA XEDEAK**

46a) Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak ezarriko ditu
46b) Sindikatuek ezarriko dituzte
46c) Unibertsitateko Errektoreak eta Gerenteak ezarriko dituzte
46d) Gizarte Kontseiluak ezarriko du

**47 UPV/EHUREN BEREZKO PREBENTZIO ZERBITZUA ATXIKITA DAGO**

47a) Unibertsitateko Gobernu Kontseiluari
47b) Errektoreari
47c) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari
47d) Unibertsitateko Gerenteari

**48 UPV/EHUREN CAMPUS ARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEAK**

48a) Guztira hemezortzi kide izango ditu
48b) Guztira hogei eta zortzi kide izango ditu
48c) Guztira hamar kide izango ditu
48d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak

**49 UPV/EHU-REN CAMPUS ARTEKO SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEAK HARTUTAKO AKORDIOAK CAMPUSEKO SEGURTASUN ETA OSASUN BATZORDEEI JAKINARAZIKO DIE**

49a) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeko Presidenteak
49b) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeko Zuzendaritza Batzordeak
49c) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeko Idazkariak
49d) Campus arteko Segurtasun eta Osasun Batzordeko Diruzainak

**50 ADIERAZI ZEIN DEN LITERATURA GRISARI DAGOKION DEFINIZIOA:**

50a) Ohiko bideetan sortzen ez den eta ohiko merkaturatze-bideetatik hedatzen ez den literatura.
50b) Kontrol bibliografiko handi baten mende dagoena.
50c) Oso eskuragarria dena, argi identifikatu, aurkitu eta eskuratu baitaiteke.
50d) Garrantzi txikiko literatura.

**51 ONDOKO ZEIN BAIEZTAPEN EZ DAGOKIO INKUNABLE KONTZEPTUARI?**

51a) Inprenta asmatu zen dataren eta 1500. urtearen artean argitaratutako liburuak.
51b) XVI. mendea baino lehenagoko eskuizkribuak.
51c) Azalik ez duten liburu inprimatuak.
51d) Protoinkunableak.

**52 ADIERAZI ZEIN ERANTZUN EZ DAGOKION LIBURUTEGIA 2.0 KONTZEPTUARI:**

52a) Erabiltzaileek liburutegian bertan esku hartzen dute zenbait zerbitzu eta teknologia erabiliz.
52b) Liburutegia 2.0 ez da aproposa unibertsitate-erakundeetarako, aisialdirako baliabideak (bideoak, musika, blogak, berri-taldeak...) eskaintzen dituelako.
52c) Internauten artean baliabideak partekatzen dituzte eta beren antolaketan esku hartzen dute.
52d) Informazioak norabide anitzekoak dira.

53 **SISTEMA ERAGILE DESBERDINAK ETA DATU-BASE MOTA DESBERDINAK DITUZTEN ORDENAGAILUEN ARTEKO KOMUNIKAZIOA AHALBIDETZEN DUEN ARAUAREN IZENA ONDOKOA DA:**

53a) XML.
53b) Rebiun.
53c) Z39.50
53d) OPAC.

54 **MARC FORMATUA SISTEMA DOKUMENTAL GUZTIETAN EZARTZEAK BEREKIN DAKARREN ABANTAILA NAGUSIETAKO BAT ONDOKOA DA:**

54a) Library of Congresok (Washintongeko Biltzar Liburutegiak) sortu zuenez, anglosaxoi munduan garapen handia izan duela.
54b) Erregistro bibliografikoak eremuetan bereizturik daudela: egilea, izenburua, gaia...
54c) Formatuak informazioa sartzeko zenbait kode mota dituela.
54d) Informazioa berehala elkartrukatzeko aukera ematen duela.

55 **ENERGIA NUKLEARREKO SARBIDE ASKEKO FONDO ESPEZIALIZATU BATEAN, SHUAREN IDAZKERA IZAN BEHARKO LUKE:**

55a) Zehaztua.
55b) Laburra, gehienez hiru zenbakikoa.
55c) Ez litzateke sailkatu behar.
55d) Berdin da zehaztua edo laburra izatea.

56 **GORDAILUEN ARGIZTAPENA IZAN BEHAR DU:**

56a) Naturala, argia sartzen uzten duten leiho handiekin.
56b) Artifiziala, ilunpetan ahalik eta gehien egoteko.
56c) Berdin da.
56d) Naturala, erradiazio ultramorea duten fluoreszenteekin konbinatua.

57 **ADIERAZI LIBURUZAINEN ELKARTE PROFESIONAL BAT EZ DEN ERAKUNDE BAKARRA:**

57a) ASNABI
57b) ALDEE
57c) ACB
57d) AABADOM

58 **ADIERAZI LIBURUTEGIEI EDO LIBURUZAINEN ELKARTEEI BURUZKOA EZ DEN ALDIZKARI BAKARRA:**

58a) Bilduma.
58b) TK.
58c) Anabad.
58d) Hik Hasi.

59 **INDUSTRIAK ETA LIBURUZAINEK META-DATUAK ERABILTZEN HASI DIRA ONDOKO ARRAZOIAGATIK:**

59a) Edukiaren deskribapenarekin batera, fitxategien barne egitura, kudeaketa, bertsio, software eta abarrei buruzko informazioa sartzen dutelako.
59b) Profesionalek informazioa berreskuratzeko balio duten marken lengoaiak eta materiai berriak ezagutzen dituztelako.
59c) Liburutegietan modu orokorrean erabiltzen direlako.
59d) Liburuzain katalogatzailearen lanbideak etorkizunik ez duelako.

60 **LIBURUTEGI BATEAN DOKUMENTU BATEN KOKALEKUA JAKITEKO OINARRIZKO DATUA ONDOKOA DA:**

60a) Katalogoa.
60b) Signatura topografikoa.
60c) Egilea edo goiburua.
60d) SHU.

61 **ELEMENTU GUZTIEN ANTOLAMENDUA ARAUTZEN DUEN ETA DESKRIBAPEN BIBLIOGRAFIKOAN HARTU BEHAR DUTEN LEKU ZEHATZA ZEHAZTEN DUEN ARAUA ONDOKOA DA:**

61a) ISBN
61b) ISBD
61c) CBU
61d) SHU

62 **ADIERAZI INFORMAZIO BIBLIOGRAFIKOAZ ARDURATZEN DEN LIBURUZAINAK EGIN BEHAR EZ DUENA:**

62a) Erabiltzaileari mota guztietako galderak egin, gaia sakonki ezagutzeko.
62b) Bilaketaren helburua galdetu, eta zertarako erabiliko duen.
62c) Zenbait galdera ez egin, denbora aurrezteko.
62d) Erabiltzailearekin bilaketa prestatu eta bilatu.

63 **ADIERAZI ONDOKO DOKUMENTUETATIK ZEIN DEN BIGARREN MAILAKO DOKUMENTU BAT:**

63a) Biltzar baten akta.
63b) Doktorego-tesi bat.
63c) Patente bat.
63d) Indizeen buletin bat.

64 **ADIERAZI SARBIDE LIBREKO UNIBERTSITATE-LIBURUTEGI BATEAN SAILKAPEN HAMARTAR UNIBERTSALAK (SHU) DUEN FUNTZIO NAGUSIA:**

64a) Liburutegian liburua aurkitzea ahalbidetzea.
64b) Liburuak gai komunetan taldekatzea.
64c) Liburuak ordenan mantentzea.
64d) Liburuzainari katalogazio prozesua erraztea.

**65 ONDOKO ZEIN DOKUMENTU EZIN DA MAILEGATU LIBURUTEGI BATEAN:**

65a) Aldizkari bat.
65b) Bideo bat.
65c) CD-ROOM bat.
65d) Bat ere ez.

**66 ESPAINIAN ISBNA ONDOKO URTEAN SARTU ZEN:**

66a) 1940
66b) 1956
66c) 1972
66d) 2000

**67 EUSKADIKO LIBURUTEGI SISTEMA ONDOKOEK OSATZEN DUTE:**

67a) Irakurketa publikoko sarea, Euskadiko Liburutegia eta Foru Administrazioen Liburutegi Publikoak.
67b) Irakurketa publikoko sarea, Euskadiko Liburutegia, Unibertsitate-liburutegiak eta Ikastetxe Publikoetako Liburutegiak.
67c) Irakurketa publikoko sarea, Euskadiko Liburutegia eta Euskadin dauden estatu administrazioko liburutegiak.
67d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

**68 LIBURUTEGI LANEN HARTZAILEA ONDOKOA DA:**

68a) Dokumentu-funtsa.
68b) Dokumentuen igorlea.
68c) Katalogoa.
68d) Bat ere ez da zuzena.

**69 HAUTAPEN DOKUMENTALA LANKIDETZAN EGITEN DEN LANA DA, BAINA GATAZKA KASUAN ONDOKOAK DU ERABAKIA HARTZEKO ARDURA:**

69a) Erabiltzaileak.
69b) Irakasleak, katedradunak, dekanoak edo errektoreak.
69c) Liburuzainak.
69d) Bat ere ez da zuzena.

**70 ESPAINIAKO UNIBERTSITATEETAN IRAKURRITAKO TESIAK BILTZEN DITUEN DATU-BASEA ONDOKOA DA:**

70a) Documata.
70b) Bilduma.
70c) Rebeca.
70d) Teseo.

71 **ALDIZKAKO ARGITALPENEN ARTIKULUEN ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK BILTZEN DITUZTEN ARGITALPENAK, ARTIKULUEN EDUKIAREN LABURPEN TXIKI BAT ERE ESKAINTZEN DUTENAK, HONELA IZENDATZEN DIRA:**

71a) Laburpenen buletinak.
71b) Sumarioen buletinak.
71c) Abstracts.
71d) Indizeen buletinak.

72 **SARBIDE NAGUSIKO PUNTUA ONDOKO ELEMENTUETAKO BATETIK HARTZEN DA:**

72a) Agintaritzaren izenetik.
72b) Pertsonaren izen, argitaratzaile eta seriearen izenetik.
72c) Pertsonaren izen, entitate eta izenburuaren izenetik.
72d) Pertsonaren izenetik.

73 **SHUAN LEKU LAGUNTZAILE KOMUNAK:**

73a) Zerotik hasten dira beti.
73b) Parentesiarekin hasten dira.
73c) + zeinuarekin hasten dira.
73d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

74 **THESAURUSETAN TERMINOAK AURKEZTEKO MODURIK OHIKOENA ONDOKOA DA:**

74a) Aurkezpen alfabetiko, sistematiko eta grafikoa.
74b) Aurkezpen numeriko eta alfabetikoa.
74c) Materien araberako aurkezpen eta herrialdeen araberako deskriptoreak.
74d) Aurkezpen grafikoa.

75 **LIBURUTEGIAK ERABILTZAILE BAKOITZARI INTERESATZEN ZAIZKION GAIEI BURUZKO BERRIEN, ARTIKULUEN ETA BERRITASUNEN BERRI EMATEKO DUEN ZERBITZUA ONDOKOA DA:**

75a) SIU (Unibertsitate-informazio zerbitzua).
75b) DSI (Informazioaren hedapen hautatua).
75c) Informazio bibliografikoa.
75d) Hedapen bibliografikoa.

76 **ONDOKO ERAKUNDEETATIK, ZEINEK EZ DU HARREMANIK LIBURUTEGI MUNDUAREKIN:**

76a) Iwetel
76b) Joana Albret Mintegia
76c) AENOR
76d) Izaro

77 **ZEIN URTETAN ONARTU ZEN EUSKADIKO LIBURUTEGIEN LEGEA:**

77a) 1990
77b) 2007
77c) 2002
77d) 1999

78 **UNIBERTSITATEAREN ERREFORMARAKO LEGEA:**

78a) III. atala unibertsitate-legeei buruzkoa da.
78b) Ez du aintzat hartzen unibertsitate-liburutegiaren irudia, estatutu eta araudiei lotuz.
78c) III. atala aipatzeaz gain, beste hainbat atali ere egiten dio erreferentzia.
78d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

79 **BATZUETAN ZAILAGOA DA 80. HAMARKADAKO (1980) DOKUMENTU ELEKTRONIKO BATERA SARBIDE IZATEA XVI. MENDEKO BATERA BAINO, ZERGATIK:**

79a) Dokumentu modernoak direnez, konfidentzialtasuna gorde behar delako.
79b) Dokumentu modernoen kopurua oso handia delako, eta horregatik zaila da horiek bilatu eta horietara sarbide izatea.
79c) Dokumentuak sortzeko erabilitako aplikazioen aurkezten dituzten aldaketak handiak eta asko direlako.
79d) Aurrekoetatik bat ere ez da zuzena.

80 **PDF/X:**

80a) Elkartrukerako erabilitako PDFa da.
80b) PDF estandarra da eta sarbide unibertsalerako erabiltzen da.
80c) Artxiborako erabilitako PDFa da.
80d) Guztiak dira zuzenak.

81 **TEKNOLOGIA DIGITALAK LIBURUTEGIEI AUKERA HANDIAK EMATEN BADIZKIE ERE, KASU BATZUETAN BERE GARAPEN OSOA MUGATZEN DUTEN ERAGOZPENAK EKARTZEN DITU BEREKIN; ADIERAZI EZAUGARRI HAUETATIK ZEIN DEN ERAGOZPEN BAT:**

81a) Originalari fideltasuna.
81b) Fitxategi digitalen iraunkortasuna.
81c) Sarbide edo atzipen anitz eta jarraitua.
81d) Originalaren irudia hobetzen du.

82 **KATALOGO KOLEKTIBOAK HORNITZEN DIRA:**

82a) Zentro beraren katalogazioa barne sartuz.
82b) Atzeranzko katalogazioa barne sartuz.
82c) Beste liburutegietako katalogoak barne sartuz.
82d) Guztiak dira zuzenak.

83 **ESPAINIAKO UNIBERTSITATE GUZTIEK BARNE ARAUDIAK DITUZTE, UNIBERTSITATE-LIBURUTEGIA JURIDIKOKI EGITURATZEN DUTENAK:**

83a) Bai, legeak hala xedatzen duelako.
83b) Bakar batek ere ez du barne araudirik, ez delako beharrezkoa, izan ere, unibertsitateetako estutuek juridikoki begiesten baitute.
83c) Zenbaitek bakarrik dituzte, baina komenigarria da izatea.
83d) Liburutegiari ez dagokion auzia da.

84 **ERABILTZAILEAREN ESKURA DAGOEN ETA LIBURUTEGI BATEN BILDUMA ANTOLATUA ERATZEN DUEN DOKUMENTU MULTZOA HONELA IZENDATZEN DA:**

84a) Inbentarioa.
84b) Katalogoa.
84c) Bibliografia- eta dokumentu-funtsa.
84d) Erregistroa.

85 **OBRA HAUETATIK, ZEIN MAILEGATU DAITEKE:**

85a) Entziklopedia bat.
85b) Bibliografia bat.
85c) Euskara hiztegi bat.
85d) Aipatutako obra guztietatik bat bera ere ezin da mailegatu.

86 **ZER DA LIBURUTEGI-KUDEAKETAKO SISTEMA INTEGRATUA:**

86a) Zentro guztiak informatizaturik dauden sistema.
86b) Liburutegian informatikoki zeregin mekaniko guztiak egiten dituen eta instituzioaren zereginetan barne dagoen sistema.
86c) Beste liburutegi zentro kolaboratzaile batzuekin liburuzain guztiek modu integralean parte hartzen duten sistema.
86d) Liburutegiko prozesu teknikoak kudeatzen dituen sistema: eskuraketa, katalogazioa, mailegua.

87 **ONDOKO ZEIN ARGITALPEN DA LITERATURA GRISA:**

87a) Aldizkako argitalpenak.
87b) Egunkari liburuak-
87c) Doktorego-tesiak.
87d) Erreferentzia-lanak.

88 **ISSN eta ISBN zenbakiak bateragarriak al dira:**

88a) Bai.
88b) Ez. Serie baten liburukiak ezin du inoiz ISBN bat liburu gisa izan.
88c) Liburu guztiek ISSN nahiz ISBN zenbakiak dituzte.
88d) Guztiak dira okerrak.

89 **LIBURUTEGI BATEN DOKUMENTUEN KONTROL ETA ZENBAKETA ONDOKOAREN BIDEZ EGITEN DA:**

89a) Katalogo topografikoaren bidez.
89b) Egileen katalogo alfabetikoaren bidez.
89c) Katalogo sistematikoaren bidez.
89d) Hiztegi-katalogoaren bidez.

90 **UNIBERTSITATEAREN ERREFORMARAKO LEGE ORGANIKOAN:**

90a) Liburutegia unibertsitatearen parte dela ofizialki onartzen da.
90b) Liburutegiaren zuzendaria Gobernu Batzordearen berezko kidea dela xedatzen da.
90c) Xedatzen da liburutegiaren zuzendariak ez duela Gobernu Batzordean berezko kide gisa parte hartzen.
90d) Bat ere ez da zuzena.

91 **SHUA KONTUAN HARTUZ, ZEIN DOKUMENTU IZANGO LITZATEKE HIRUGARRENA:**

91a) 689.3
91b) 689
91c) 689.12
91d) 689.111

92 **UNIBERTSITATE-LIBURUTEGIKO FUNTZIO NAGUSIAK ONDOKOAK DIRA:**

92a) Informazioa irakasle eta ikasleei ematea.
92b) Funtsa osorik eta ordenaturik mantentzea.
92c) Unibertsitatearen berezko funtsak hautatu, prozesatu, kontserbatu eta hedatzea, baita kanpo informazioaren sarbidea erraztea ere.
92d) Irakasgaiak ikasteko funtsak ematea.

93 **LIBURUTEGIEN LEGEA ONARTU ZUEN LEHENENGO AUTONOMIA-ERKIDEGOA ONDOKOA IZAN ZEN.**

93a) Andaluzia.
93b) Nafarroa.
93c) Euskadi.
93d) Katalunia.

94 **NOLA DEITZEN DA DOKUMENTU BERAREN TERMINO BATZUK (BERE EDUKIA ADIERAZTEKO LENGOAIA DOKUMENTALERA ITZULITA DAUDENAK) HAUTATZEKO ZEREGINA.**

94a) Katalogatzea.
94b) Indexatzea.
94c) Laburtzea.
94d) Sailkatzea.

**95 EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ZEREGINAK ONDOKOAK DIRA:**

95a) Funts bibliografikoak katalogaturik daudela kontrolatzea.
95b) Liburutegi politikaren jarduera ildo nagusiak proposatzea.
95c) Liburutegi-maileguaren indizeak ezartzea.
95d) Funtsen sailkapena definitzea.

**96 ZEIN ITURRI ELEKTRONIKO KONTSULTATUKO ZENUKE EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO LIBURUTEGIAREN WEB ORRITIK DOKUMENTU BATEN TESTU OSOA ELEKTRONIKOKI LORTU NAHI IZANGO BAZENU:**

96a) VLEX
96b) E-LIS
96c) WESTLAW
96d) LEONARDO

**97 ERABILTZAILE BATEK ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKO BAT IDATZI NAHI BADU, ZEIN ARGITALPEN EMANGO ZENIOKE:**

97a) Dokumentazioari buruzko UNEren arauak.
97b) SHUa.
97c) Katalogazio arauak.
97d) Bibliografia bat.

**98 ADIERAZI ZEIN IZAN DEN EUSKAL HERRIKO LEHENENGO UNIBERTSITATEA:**

98a) Iratxeko Unibertsitatea.
98b) Iruñeko Unibertsitatea.
98c) Oñatiko Unibertsitatea.
98d) Erriberriko Unibertsitatea.

**99 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURA LANA EGITEN DUTENAK HONAKOAK ARAUTUKO DITU:**

99a) Laneko legeriak eta konbentzionalki ezar daitezkeen gainerako arauek eta hala xedatzen duten Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren prezeptuek.
99b) Laneko legeriak eta hala xedatzen duten Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren prezeptuek.
99c) Laneko legeriak eta berariaz ezartzea salbuesten ez duten Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren prezeptuek.
99d) Laneko legeriak eta konbentzionalki ezar daitezkeen gainerako arauek eta berariaz ezartzea salbuesten ez duten Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren prezeptuek.

**100 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZURA LANA EGITEN DUTENEK AITATASUNAGATIK BAIMEN HAU IZANGO DUTE:**

100a) 15 egun, semea edo alaba jaiotzen den egunetik kontatzen hasita.
100b) 13 egun, semea edo alaba jaiotzen den egunetik kontatzen hasita.
100c) 15 egun, ohiko aitatasun-baimena amaitzen denetik hasita.
100d) 13 egun, ohiko aitatasun-baimena amaitzen denetik hasita.

## PREGUNTAS RESERVA

**101 EUSKO LEGEBILTZARRAREN LEGEAK**

101a) Legebiltzarrak aldarrikatuko ditu
101b) Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak aldarrikatuko ditu
101c) Ez ditu inork aldarrikatzen
101d) Erregeak aldarrikatu ohi ditu

**102 HUTSEGITE OSO LARRIAK NOIZ PRESKRIBITZEN DIRA**

102a) 6 urte ondoren.
102b) 3 urte ondoren.
102c) 6 hilabete ondoren.
102d) 10 urte ondoren.

**103 ADMINISTRAZIO ERREKURTSOEN PRINTZIPIO OROKORREI DAGOKIONEZ, AUKERA EZAZU ERANTZUN ZUZENA:**

103a) Beti bide administratiboari amaiera ematen diote, besteak beste, goragoko organorik ez duten administrazio organoen ebazpenek.
103b) Beti bide administratiboari amaiera ematen diote, besteak beste, akordio, itun, hitzarmen edo kontratuek.
103c) Beti bide administratiboari amaiera ematen diote, besteak beste, gorago jotzeko errekurtsoek eta berraztertzeko ezohiko errekurtsoek, betiere azken honetan legez aurreikusitako baldintzak ematen badira.
103d) Beti bide administratiboari amaiera ematen diote, besteak beste, hierarkian goragoko organorik ez duten administrazio organoen ebazpenek, Lege batek kontrakoa ezartzen ez badu.

**104 EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAREN LEGEAK II. TITULUA ESKAINTZEN DIE**

104a) Irakasleei
104b) Unibertsitate-komunitateari
104c) Euskal unibertsitate sistemaren ekonomia eta finantza-erregimenari
104d) Kalitateari

**105 EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK**

105a) Zuzenbide Publikoko diru-sarrerak izan ditzake soilik
105b) Zuzenbide Publikoko eta Euskal Autonomi Erkidegoko diru-sarrerak izan ditzake soilik
105c) Zuzenbide pribatuko zein Zuzenbide publikoko diru-sarrerak ditu
105d) Soilik Eusko Jaurlaritzako diru-sarrerak jasotzen ditu

**106** **IFLAREN (INTERNACIONAL FEDERATION OF LIBRARY ASSOCIATIONS AND INSTITUTIONS) GOMENDIOEN ARABERA, ZEIN ERAKUNDEK HARTU BEHARKO LUKE BERE GAIN HERRIALDE BAKOITZEKO ARGITALPEN-PRODUKZIOAREN ERREGISTRO BIBLIOGRAFIKO OSOAK ETA IDENTIFIKAZIO SISTEMAK (ISBN, ISSN...) SORTZEKO ARDURA?**

106a) Agentzia Bibliografiko Nazionalak.
106b) Liburutegi Nazionalak.
106c) Europako Liburutegi Digitalak.
106d) IFLAk.

**107** **IA BAKARRIK LITERATURAREN EREMU ZEHATZ BATEAN JARDUTEN DUTEN LIBURUTEGIAK ONDOKOAK DIRA:**

107a) Administrazioko liburutegiak.
107b) Administrazio zentroak.
107c) Liburutegi espezializatuak.
107d) Unibertsitate-liburutegiak.

**108** **ZER DA ERREFERENTZIA ZERBITZU BAT:**

108a) Mailegu zerbitzua.
108b) Kontsulta zerbitzua.
108c) Katalogazio eta argitalpen zerbitzua.
108d) Hautaketa eta eskuraketa zerbitzua.

**109** **GAUR EGUN, HORNITZAILE, ARGITARATZAILE, HARPIDETZE AGENTZIA ETA ALDIZKARI ELEKTRONIKO ETA DATU-BASEEN BANATZAILEEN HELBURU NAGUSIA ONDOKOA DA:**

109a) Erreferentzia bibliografikoak ahalik eta berehalakotasun handienarekin eskaintzea.
109b) Erreferentzia bibliografikoak eta dokumentuak ahalik eta ekonomia-doikuntza handienarekin eskaintzea.
109c) Zerbitzuak paketeria bizkor bidez eskaintzea.
109d) Artikuluen testu osoa eskaintzea.

**110** **LANALDI BAT AMAITU ETA HURRENGO HASI AURRETIK ATSEDEN HARTZEKO GUTXIENEKO ALDIA HONAKOA IZANGO DA:**

110a) 10 ordu.
110b) 8 ordu.
110c) 12 ordu.
110d) Hitzarmen Kolektiboan ezarritakoa.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**ADMINISTRATIBOAK**

**ADMINISTRATIVOS**

| Galdera zb. Nº pregunta | Erantzuna Respuesta | Galdera zb. Nº pregunta | Erantzuna Respuesta |
|---|---|---|---|
| 1 | C | 51 | B |
| 2 | A | 52 | B |
| 3 | B | 53 | C |
| 4 | C | 54 | D |
| 5 | A | 55 | A |
| 6 | B | 56 | B |
| 7 | C | 57 | C |
| 8 | C | 58 | D |
| 9 | D | 59 | A |
| 10 | B | 60 | B |
| 11 | A | 61 | B |
| 12 | D | 62 | C |
| 13 | C | 63 | D |
| 14 | C | 64 | B |
| 15 | D | 65 | A |
| 16 | A | 66 | C |
| 17 | B | 67 | B |
| 18 | C | 68 | D |
| 19 | B | 69 | C |
| 20 | B | 70 | D |
| 21 | A | 71 | A |
| 22 | C | 72 | C |
| 23 | D | 73 | B |
| 24 | A | 74 | A |
| 25 | A | 75 | B |
| 26 | A | 76 | D |
| 27 | A | 77 | B |
| 28 | C | 78 | B |
| 29 | A | 79 | C |
| 30 | D | 80 | A |
| 31 | C | 81 | B |
| 32 | A | 82 | D |
| 33 | C | 83 | C |
| 34 | B | 84 | C |
| 35 | C | 85 | D |
| 36 | D | 86 | D |
| 37 | D | 87 | C |
| 38 | A | 88 | A |
| 39 | D | 89 | A |
| 40 | A | 90 | A |
| 41 | A | 91 | C |
| 42 | B | 92 | C |
| 43 | C | 93 | D |
| 44 | A | 94 | B |
| 45 | B | 95 | B |
| 46 | C | 96 | B |
| 47 | D | 97 | A |
| 48 | A | 98 | C |
| 49 | C | 99 | A |
| 50 | A | 100 | A |

**Erreserbako galderak**
**Preguntas reserva**

| Galdera zb. Nº pregunta | Erantzuna Respuesta |
|---|---|
| 101 | B |
| 102 | B |
| 103 | D |
| 104 | B |
| 105 | C |
| 106 | A |
| 107 | C |
| 108 | B |
| 109 | D |
| 110 | C |

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# LAN-POLTSETARAKO HAUTAPEN-PROZESUA

# ADMINISTRAZIOKO ESKALA

# Zati teorikoa
# A eredua

**2010eko martxoaren 17a**

**1. Noiz sartu zen indarrean Espainiako Konstituzioa?**

a) 1978ko abenduaren 6an
b) 1978ko abenduaren 27an
c) 1978ko abenduaren 29an
d) 1978ko urriaren 12an

**2. Espainiako Konstituzioaren arabera, estradizioz kanpo geratzen dira:**

a) Terrorismoko delituak
b) Delitu politikoak
c) Delitu arruntak
d) Odol-delituak

**3. Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren arabera, zein da zuzena honako esaldi hauen artean?**

a) Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztiek dute bi hizkuntza koofizialak ezagutu eta erabiltzeko eskubidea eta betebeharra
b) Euskara da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial bakarra
c) Ezin da inor diskriminatu hizkuntza-arrazoiengatik
d) Euskara Euskal Autonomia Erkidegoko ondare bakarra da

**4. Liburutegiko lineako katalogoa**

a) BUPVCAT
b) PAPYRUS
c) INNOPAC
d) ABSYSWEB

**5. Zer adierazten du kokapen-kodeak?**

a) Dokumentu baten jatorria
b) Dokumentu baten erabilgarritasuna jakineko funts batean
c) Dokumentu baten kokapena jakineko funts batean
d) Dokumentu baten deskripzio formala

**6. UPV/EHUko Gobernu Kontseilua:**

a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren agindupean aritzen da
b) Unibertsitate Komunitateko gobernu-organo bakarra da
c) Unibertsitate Komunitateko ordezkaritza-organo gorena da
d) Politika orokorreko jarraibideak garatu, zuzendu eta, hala dagokionean, egikaritzen ditu

**7. Nork xeda ditzake administrazio-egintzak?**

a) Ebatzi beharreko gaiari buruzko txostenak egin behar dituen administrazioko edozein organok
b) Organo eskudunak, xedatutako prozedurara doituta
c) Interesatuak eskaera aurkezteko baliatu duen bulegoak
d) Errektoreak soilik

**8. Zerk arautuko du Herri Administrazioen zerbitzura ari den lan-kontratuko pertsonala?**

a) Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arauek
b) Lan Zuzenbideko arauek eta haren berariazko aipamena egiten duten Euskal Funtzio Publikoaren Legeko aginduek
c) Bere hitzarmen kolektiboak soilik
d) Lan Zuzenbideko arauek

**9. Zein da dokumentu bat zigilatzearen egiteko nagusia?**

a) Hura lapurtzen ez uztea
b) Jabea identifikatzea
c) Indarreko araudia betetzea
d) Katalogatu eta sailkatu behar diren dokumentuak identifikatzea

**10. Dokumentuak koadernatzeak:**

a) Haren erreprodukzioa errazten du
b) Haren bizia luzatzen du
c) Ez da egokia sarrera libreko bildumetan
d) Haren mailegua errazten du

**11. Administrazio-egintza baten jakinarazpenak:**

a) Nahikoa du ebazpenaren laburpena izatea
b) Beste batzuen artean, ebazpenaren eta haren aurkako errekurtsoen testu osoa izan behar ditu
c) Ez da beharrezkoa baina komeni da ebazpenaren testu osoa izatea
d) Nahikoa du errekurtsoak jartzeko epea izatea

**12. Nori dagokio UPV/EHUren estatutuak onartzea?**

a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari
b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluari
c) Unibertsitateko Klaustroari
d) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluari

**13. Ikastegiko Ataletan nahitaez egongo da:**

a) Zuzendari bat, bertako irakasle atxikia izan behar duena edo, irakasle atxikirik ez badago, bertan irakasten duen beste irakasle bat
b) Ordezkari bat, bertako irakasle atxikia izan behar duena edo, irakasle atxikirik ez badago, bertan irakasten duen beste irakasle bat
c) Administratzaile bat, AZPri atxikitako kidea izan behar duena
d) Koordinatzaile bat, bertako irakasle atxikia izan behar duena edo, irakasle atxikirik ez badago, bertan irakasten duen beste irakasle bat

**14. Zer organori dagokio Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonaleko lanpostu-zerrenda onartzea?**

a) Gizarte Kontseiluari
b) Gobernu Kontseiluari
c) Kudeatzaileari
d) Errektoreari

**15. Zein da UPV/EHUko Liburutegiak erabiltzen duen kudeaketa-programa**?

a) KOHA
b) DOBIS.LIBIS
c) AMICUS
d) ABSYS

**16. Administrazio-isiltasunaren teknikak:**

a) Ustezko onarpen-kasuetan berariazko ebazpena xedatzeko betebeharretik libre uzten du Administrazioa
b) Ustezko ez-onarpeneko kasuetan berariazko ebazpena xedatzeko betebeharretik libre uzten du Administrazioa
c) Administrazioa ez du libre uzten berariazko ebazpena xedatzeko betebeharretik
d) Interesatuaren eskaera kasu guztietan onartutzat jotzen dela esan nahi du

**17. Noiz preskribatzen da administrazioari ondare-erantzukizuna eskatzeko eskubidea?**

a) Kaltea eragin zuen gertakaria edo egintza gertatu eta 3 hilabetera
b) Kaltea eragin zuen gertakaria edo egintza gertatu eta 6 hilabetera
c) Kaltea eragin zuen gertakaria edo egintza gertatu eta hilabetera
d) Kaltea eragin zuen gertakaria edo egintza gertatu eta urtebetera

**18. Zertarako balio diete Euskal Herri Administrazioei lanpostu-zerrendak?**

a) Euren barneko egiturak arrazionalizatu eta antolatzeko
b) Bakoitzaren jarduera-bolumena adierazteko
c) Kontratazio berrien premiak zehazteko
d) Haiek gauzatzeko behar diren materialak zehazteko

**19. Nola has daiteke administrazio-prozedura bat?**

a) Gaitasun juridikoa duen edonork eskatuta
b) Ofizioz edo pertsona interesatuak eskatuta
c) Administrazioak eskatuta
d) Epailearen aginduz

**20. Nori dagokio UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako pertsonal funtzionarioentzako barneko sustapen-prozesuaren deialdia egitea?**

a) Gobernu Kontseiluari, errektoreak proposatuta
b) Kudeatzaileari, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkaritza-organoek proposatuta
c) Errektoreari, kudeatzaileak proposatuta
d) Gizarte Kontseiluari, errektoreak proposatuta

**21. Zer esan nahi du (/) barrak SHUn?**

a) Zenbaki nagusiaren ordenazio alfabetikoa banantzen du
b) Luzapena, ondoz ondoko zenbakiak biltzen ditu
c) Luzapena, ondoz ondokoak ez diren zenbakiak biltzen ditu
d) b) edo c), kasuaren arabera

**22. Dokumentuak erreproduzitzeko sistemek:**

a) Dokumentuen segurtasuna lor dezakete
b) Narriadura eragin dezakete dokumentuetan
c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira
d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena

**23. Prestakuntza-kontratuaren iraupena:**

a) Ez da izango ez hamabi hilabete baino gutxiagokoa eta ez hiru urtetik gorakoa
b) Enpresariak eta langileak askatasunez hitzartzen dutena izango da
c) Ez da izango ez sei hilabete baino gutxiagokoa eta ez bi urtetik gorakoa
d) Ez da izango ez sei hilabete baino gutxiagokoa eta ez hiru urtetik gorakoa

**24. Nola egin daiteke Gizarte Segurantzako afiliazioa?**

a) Egintza horretara behartuta dauden pertsona eta erakundeek eskatuta
b) Interesatuek eskatuta
c) Ofizioz, Gizarte Segurantzako Administrazioaren bitartez
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**25. Nori dagokio Ikastegi bakoitzaren Araudia behin betiko onartzea?**

a) Ikastegiko Batzordeari, derrigorrezko legezkotasun-txostena egin ondoren
b) Ikastegiko dekano edo zuzendariari, derrigorrezko legezkotasun-txostena egin ondoren
c) Gobernu Kontseiluari, derrigorrezko legezkotasun-txostena egin ondoren
d) Campuseko Batzordeari, derrigorrezko legezkotasun-txostena egin ondoren

**26. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, hizkuntza-eskakizuna:**

a) Derrigorrezko eskakizuna da edozein lanpostutan sartzeko eta lanpostu hori betetzeko
b) Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak esleitzen dio Euskal Herri Administrazioetako lanpostu bakoitzari
c) Lanpostu-zerrendetan agertu behar du
d) Meritu gisa hartzen bada, hautaketa-prozesu osoan lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 15 baino gehiagoko eta % 20 baino gutxiagoko balorazioa izango du hauta-probetan

**27. Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen arabera, nori dagokio unibertsitateak sortu, ezabatu eta aitortzea?**

a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari
b) Lehendakariari
c) Eusko Legebiltzarrari
d) Hezkuntza Ministerioari

**28. Zerk osatzen du Gizarte Segurantzako sistema?**

a) Erregimen Orokorrak
b) Erregimen Bereziek
c) Erregimen Orokorrak eta Administrazioko Funtzionarioen Erregimen Bereziak
d) Erregimen Orokorrak eta Erregimen Bereziek

**29. UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalari dagokio:**

a) Bere ikastegiko ikasketa-plana xehetasunez ezagutzea
b) UPV/EHUk bere helburuak eta egitekoak betetzeko behar dituen kudeaketa- eta euskarri-prozesuak garatzea
c) Aparteko lanak egiteko beti prest egotea
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

**30. Zer eskakizun bete behar ditu unibertsitateko irakasle batek sail bateko idazkari akademiko izateko?**

a) Karrerako funtzionario izatea
b) Sailera atxikita gutxienez bost urte eramatea
c) Jarduneko irakaslea izatea
d) Ikastegiko Dekanotzak edo Zuzendaritzak abalatutako hautagaitza aurkeztea

**31. Zer diote UPV/EHUren Estatuek liburutegiari buruz?**

a) Unibertsitateko liburutegia ikaskuntzarako, irakaskuntzarako, ikerketarako eta Unibertsitatearen funtzionamenduarekin eta kudeaketarekin zerikusia duten jardueretarako baliabide-zentroa da
b) Unibertsitateko liburutegiaren eskumena da liburutegi-zerbitzuari esleitutako aurrekontuarekin lortutako informazio-baliabideak eraginkortasunez kudeatzea
c) Unibertsitateko liburutegia Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Gerenteordetzaren mende egongo da
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**32. Honako esaldi hauen artean zein da zuzena UPV/EHUko prebentzio-antolaketari dagokionez?**

a) UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzio-zerbitzu mankomunatu gisa dago eratuta
b) UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua prebentzio-zerbitzu propio gisa dago eratuta
c) UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua kanpoko prebentzio-zerbitzu baten zuzendaritzapean dago antolatuta
d) UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzua ikastegi bakoitzak hartzen du bere gain

**33. Zein da dokumentu bat eskuratzearen ondorengo urratsa?**

a) Funtsean kokatu eta ordenatzea
b) Katalogatu eta sailkatzea
c) Etiketatzea
d) Mailegatu eta kontsultatzeko prest uztea

**34. Zer gobernu-organori dago atxikita UPV/EHUko liburutegia?**

a) Ikasketen Antolamenduko Errektoreordetzari
b) Irakaskuntzaren Kalitate eta Berrikuntzako Errektoreordetzari
c) Ikerketako Errektoreordetzari
d) Informazioaren eta Komunikazioen Teknologien Gerenteordetzari

**35. Administrazio-prozedura batean, interesatuek:**

a) Prozeduraren bukaeran soilik dute izapidearen egoera ezagutzeko eskubidea
b) Ez dute prozeduraren izapidearen egoera ezagutzeko eskubiderik
c) Edozein unetan dute prozeduraren izapidearen egoera ezagutzeko eskubidea
d) Espedientearen egoera ezagutzeko eskubidea dute, baldin eta aurrez administrazioari jakinarazten bazaio

**36. UPV/EHUren estatutuen arabera, honako hauek sartzen dira ikastegiei esleitutako egitekoen artean:**

a) Urteko txostena egitea
b) Aurrekontuko zuzkidura kudeatzea, baliabide materialak administratzea eta atxikitako giza baliabideak zuzentzea
c) Irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak euren betebeharrak betetzen dituztela zaintzea
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**37. Zer organori dagokio Irakasleen Batzordearen erregelamendua onartzea?**

a) Gobernu Kontseiluari
b) Unibertsitateko Klaustroari
c) Gizarte Kontseiluari
d) Hezkuntza Ministerioari, UPV/EHUk proposatuta

**38. UPV/EHUko liburutegian, oro har, etxerako mailegutik kanpo geratzen dira:**

a) Testak
b) Bideoak
c) CD-ROMak
d) Erreferentziako lanak

**39. Administrazio-errekurtsoa jar dezake:**

a) Legitimatuta dagoenak, hau da, gaian eskubide subjektiboa edo interes legitimoa duenak
b) Legitimatuta dagoenak, hau da, gaian interes pertsonala eta zuzena duenak
c) Administrazioak
d) Interesatuak nahiz administrazioak

**40. Sistema automatizatu baten zirkulazio-moduluan, zer lotzen ditu liburu baten maileguak?**

a) Bibliografia-erregistroa erabiltzaile-erregistroarekin
b) Ale-erregistroa erabiltzaile-erregistroarekin
c) Bibliografia-erregistroa funts-erregistroarekin
d) Bibliografia-erregistroa ale-erregistroarekin

**41. Nork osatzen du, Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen arabera, UPV/EHUko Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala?**

a) UPV/EHUko eskaletako pertsonal funtzionarioak eta UPV/EHUk kontratatutako pertsonalak
b) Karrerako funtzionarioek eta pertsonal kontratatuak
c) Funtzionario bitartekoek eta karrerako funtzionarioek
d) Funtzionarioek eta aldi baterako langileek

**42. Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen arabera, honako hauek sartzen dira UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren egitekoen artean:**

a) Gobernu Kontseiluak proposatuta, Unibertsitatearen inbertsioen urte anitzeko programa onartzea
b) Tasa akademikoak eta titulu ofizialak lortzeko balio duten ikasketetarako gainerako eskubideak finkatzea
c) Kudeatzailearen izendapena onartzea
d) Errektorea izendatzea

**43. Noiz da bidezkoa Herri Administrazioek kalteak ordaintzeko eskubidea?**

a) Partikularrek izandako lesioa legez kanpoko administrazio-jarduera baten ondorioa denean
b) Partikularrek izandako lesioa zerbitzu publikoen funtzionamendu normalaren edo ezohikoaren ondorioa denean
c) Partikularrek izandako lesioa zerbitzu publikoen ezohiko funtzionamenduaren ondorioa denean
d) Partikularrek izandako lesioa administrazioaren zabarkeriaren ondorioa denean

**44. Erabiltzaileen erregistroen fitxategi automatizatu batean beharrezkoak dira:**

a) Datu pertsonalak
b) Erabiltzaile-kategoriak
c) Erabiltzaile-zenbakiak
d) Erantzun guztiak zuzenak dira

**45. Euskal Herri Administrazioetako funtzionarioak zerbitzu berezien egoeran egongo dira:**

a) Aldi baterako pertsonalarentzako lanpostuak betetzen dituztenean
b) Betetzen duten lanpostua ezabatu eta beste bat ematea ezinezkoa denean
c) Seme-alabak zaintzeko lan-utzialdia eskatzen dutenean
d) Edozein herri Administraziotako beste Kidego edo Eskala batean zerbitzu aktiboan egon eta beste egoera batean geratzea ez dagokienean

**46. Lan-kontratuko langileek bete beharreko lanpostuak honako hauek izango dira:**

a) Ezagutza tekniko espezializatuak eskatzen dituzten jarduera-arloei dagozkien lanpostuak
b) Izaera iraunkorreko lanpostuak, aldizkako premiak gogobetetzeko beharrezkoak direnak
c) Izaera iraunkorreko lanpostuak, etenkako premiak gogobetetzeko beharrezkoak direnak
d) Aurreko baieztapenetako bat bera ere ez da zuzena

**47. Urteko aurrekontuan gastuek izaera mugatzailea izango dute eta diru-sarrerek:**

a) Informatzailea
b) Behin betikoa
c) Behin-behinekoa
d) Estatutarioa

**48. Kontratu publiko baten esleipena egiten denean, gastuen aurrekontuaren zer fase gauzatu behar da?**

a) O (Ordainketa)
b) B (Baimena)
c) E (Erabilgarritasuna)
d) O (Obligazioa)

**49. UPV/EHUko larrialdiak kudeatzeko prozedurak dio ikastegietako autobabeserako batzordeko buru izango dela:**

a) Administratzailea
b) Campuseko gerenteordea
c) Dekano edo zuzendaria
d) Prebentzioko zerbitzuburua

**50. Nolakoa izango da UPV/EHUren aurrekontua?**

a) Orekatua
b) Bi urtez behingoa
c) Behin-behinekoa
d) Ordenatua

## ERRESERBAKO GALDERAK

**51. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera, euskal izaera politikoa izango du:**

a) Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen bat hitz egiten duen orok
b) Euren bizitzako uneren batean administrazio-auzotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan izan eta atzerrian bizi direnek eta horien ondorengoek
c) Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten Lurralde Historikoetako batean jaiotakoek soilik
d) Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean kokatutako edozein udalerritan administrazio-auzotasuna dutenek

**52. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, behin seme-alabak zaintzeko lan-utzialdiko gehienezko epea amaitzen denean, zein da funtzionarioak zerbitzu aktibora itzultzea eskatzeko duen gehienezko epea?**

a) 15 egunekoa
b) 30 egunekoa
c) 60 egunekoa
d) 90 egunekoa

**53. SHU sailkapeneko zer zenbakitan kokatuko zenuke Medikuntza?**

a) 0an
b) 6an
c) 5ean
d) 3an

**54. Nork abalatu behar du errektore kargurako hautagaitza?**

a) Klaustrokideek eta Gobernu Kontseiluko kideek
b) Klaustrokideen % 10ak gutxienez
c) Klaustrokideek eta katedradunen % 10ak
d) Aurreko erantzunetako bat bera ere ez da zuzena

**55. Nola esaten zaio partzialki erretiratzeko bere lanaldia eta soldata % 25eko gutxienekoaren eta % 85eko gehienekoaren artean murriztu dituen langileak hutsik lagatako lanaldia ordezteko lan-kontratuari?**

a) Txandako lan-kontratua
b) Ordezte-kontratua
c) Bitarteko lan-kontratua
d) Kontratu mugagabea

**GARRANTZITSUA:**

**1. Erreserbako galderak ere erantzun egin behar dira.**

**2. Ezinbestekoa da egindako suposizio teorikoaren eredua erantzunen orrian adieraztea.** ***Egiazta ezazu!!!***

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**Bolsa de trabajo de Administrativos /Administariak izeneko lan poltsa**
**Hoja de respuestas/Erantzun orria**
**Teórico / Teorikoa**

| Nº / Zbk. | **MODELO A EREDUA** |
|---|---|
| | Respuesta/Erantzuna |
| 1 | C |
| 2 | B |
| 3 | C |
| 4 | B |
| 5 | C |
| 6 | D |
| 7 | B |
| 8 | B |
| 9 | B |
| 10 | B |
| 11 | B |
| 12 | C |
| 13 | D |
| 14 | B |
| 15 | C |
| 16 | C |
| 17 | D |
| 18 | A |
| 19 | B |
| 20 | C |
| 21 | B |
| 22 | C |
| 23 | C |
| 24 | D |
| 25 | C |
| 26 | C |
| 27 | C |
| 28 | D |
| 29 | B |
| 30 | C |
| 31 | A |
| 32 | B |
| 33 | B |
| 34 | C |
| 35 | C |
| 36 | D |
| 37 | A |
| 38 | D |
| 39 | A |
| 40 | B |
| 41 | A |
| 42 | A |
| 43 | B |
| 44 | D |
| 45 | A |
| 46 | A |
| 47 | C |
| 48 | C |
| 49 | C |
| 50 | A |

| Nº / Zbk. | **MODELO B EREDUA** |
|---|---|
| | Respuesta/Erantzuna |
| 1 | A |
| 2 | A |
| 3 | D |
| 4 | A |
| 5 | B |
| 6 | C |
| 7 | C |
| 8 | A |
| 9 | C |
| 10 | D |
| 11 | A |
| 12 | D |
| 13 | C |
| 14 | D |
| 15 | A |
| 16 | A |
| 17 | B |
| 18 | B |
| 19 | C |
| 20 | A |
| 21 | B |
| 22 | C |
| 23 | C |
| 24 | D |
| 25 | A |
| 26 | B |
| 27 | A |
| 28 | D |
| 29 | C |
| 30 | D |
| 31 | B |
| 32 | C |
| 33 | D |
| 34 | B |
| 35 | A |
| 36 | D |
| 37 | C |
| 38 | D |
| 39 | C |
| 40 | A |
| 41 | B |
| 42 | D |
| 43 | B |
| 44 | D |
| 45 | B |
| 46 | A |
| 47 | A |
| 48 | C |
| 49 | A |
| 50 | C |

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# LAN-POLTSETARAKO HAUTAPEN-PROZESUA

# ADMINISTRAZIOKO ESKALA

# Kasu praktikoak
# A eredua

**2010eko martxoaren 17a**

# 1. Aukera

Ikasle batek gero eman ez zen hautazko irakasgai baten matrikulagatik ordaindu zuen prezio publikoaren zenbatekoa itzultzeko eskatu nahi dio Unibertsitateari. Beste ikaslerik matrikulatu ez zenez, irakasgaia ikasturteko irakaskuntza-eskaintzan ez sartzea erabaki zuen ikastegiak.

Ikasleak ezin du eskaera egin Alemaniako unibertsitate batean dagoelako Erasmus programarekin. Horregatik, beste batengana jo behar du eskaera aurkez dezan eta ez daki nori eskatu: aitari, gelakide bati edo adiskide abokatu bati.

1. **Aitak itzulketa-eskaera sinatu eta matrikulatuta dagoen ikastegiko idazkaritzan aurkeztu du. Eska al dezake eskaeraren kopia emateko entrega-data eta guzti?**

    a) Bai, baldin eta idatziz eskatzen badu.
    b) Ez, inoiz ez.
    c) Bai, nolanahi eskatzen duela ere.
    d) Ez, ikaslearen aita delako.

2. **Eskaera aztertzean, idazkaritzan ohartu dira; batetik, ez duela ikasleak sinatu, aitak baizik; eta bestetik, tasak ordaindu izanaren egiaztagiria soilik aurkeztu duela. Zer izapide egin behar ditu Idazkaritzak?**

    a) Hilabeteko epean berak sinatutako beste eskaera bat aurkezteko eskatu behar dio ikasleari.
    b) Bere NANaren kopia aurkezteko eskatu.
    c) Eskaera izapidetzeko aitaren ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua 10 eguneko epean aurkezteko eskatuko dio ikasleari.
    d) Errektoretzari igorriko dio eskaera, hark itzulketa egin dezan.

**3. Abokatua, ikaslearen adiskidea eta Zuzenbidean aditua denez, Ikastegiko idazkaritzan aurkeztu da izapidearen egoeraren berri jakiteko. Zer eskubide eska diezazkioke administrazioari?**

    a) Edozein unetan dute prozeduraren izapidearen egoera ezagutzeko eskubidea.
    b) Espedientearen egoera ezagutzeko eskubidea dute, baldin eta aurrez idatziz eskatzen badute.
    c) Prozeduraren azken fasean izapidearen fasea ezagutzeko.
    d) Ez dute prozeduraren izapidearen egoera ezagutzeko eskubiderik.

4. **Idazkaritzak Errektoretzako Tasen Bulegora bidali du espedientea eta espedientearen edukian ez da ondorioztatzen planteatutako eskaera izapidetzeko arrazoia. Zer izapide egin behar du Tasen Bulegoak?**

   a) Espedientea itzuli.
   b) Ikasleari jakinarazi itzulketa ez dela egokia.
   c) Ikastegiko Idazkaritzako buruari eskatu behar dio txostena egin eta bidaltzeko 5 eguneko epean.
   d) Espedientea osatu behar du ikaslea matrikulatuta dagoen ikastegiko arduradun gorenaren txostenarekin.

5. **Zer informazio ezin da falta ikastegiaren txostenean?**

   a) Ikaslearen NAN.
   b) Titulua eta matrikulatutako ikasturtea.
   c) Ikaslearen eskaeran deskribatutako gertaerak halaxe gertatu direla adierazten duen egiaztapena.
   d) a) eta b) erantzunetan jasota dagoena.

6. **Zer epe du ikastegiko arduradun gorenak txostena bideratzeko?**

   a) Ez dago finkatuta.
   b) 5 egunekoa.
   c) 10 egunekoa.
   d) Hilabetekoa.

7. **Prozedura honetan ez dago txostenen izaerari buruzko berariazko xedapenik. Zer izaera du ikastegiak egin beharreko txostenak?**

   a) Loteslea.
   b) Derrigorrezkoa.
   c) Hautazkoa.
   d) Hautazkoa eta ez-loteslea.

8. **Zer ondorio ditu prozeduran txostena adierazitako epean ez jasotzeak?**

   a) Izapidea gelditzen da.
   b) Jarduketak egiten jarrai daiteke.
   c) Informazioa eskatzen zaie administrazio eskuduneko beste organo batzuei.
   d) Egiteko ardura zuenari zehapen-espedientea irekiko zaio.

**9. Behin espedientea osatutakoan, zenbat denbora du Unibertsitateko organo eskudunak ebazpena emateko?**

a) 6 hilabetekoa.
b) 3 hilabetekoa, espedientea osatu den egunetik kontatzen hasita.
c) 3 hilabetekoa, eskaera Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkezten denetik.
d) Ikasturtea amaitu baino lehen.

**10. Interesatuen aldeko ebazpena eman da. Zer elementu ezin da falta ebazpenean?**

a) Txostenaren arduradunaren izena.
b) Ikaslea matrikulatuta dagoen ikastegia.
c) Errekurtsoak jartzeko epea.
d) Ez a) eta ez b).

**11. Ebazpena jakinarazi egin behar da. Zer baldintza bete behar ditu jakinarazpenak?**

a) Nahikoa du ebazpenaren laburpena izatea.
b) Beste batzuen artean, ebazpenaren eta haren aurkako errekurtsoen testu osoa izan behar ditu.
c) Ez da beharrezkoa baina komeni da ebazpenaren testu osoa izatea.
d) Nahikoa du errekurtsoak jartzeko epea izatea.

**12. Zer epe dago jakinarazpena egiteko?**

a) Hilabetekoa ebazpenaren datatik.
b) 6 hilabetekoa Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkezten denetik.
c) 10 egunekoa ebazpenaren datatik.
d) Ez dago finkatutako eperik.

**13. Errektorearen ebazpena ikaslearen interesen aldekoa da hein batean eta bere adiskide abokatuak beste errekurtso bat jartzeko aholkatu dio. Zer errekurtso mota jar dezake?**

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.
b) Gorako errekurtsoa.
c) Berraztertze-errekurtsoa.
d) Berrikuspen-errekurtsoa.

**14. Jar daitezkeen errekurtsoak administrazio-organo baten aurrean aurkeztu behar dira eta emandako ebazpenak ez du aipatzen administrazio-organo hori. Zer ondorio ditu ebazpenak?**

a) Ez du ondoriorik.
b) Erabat deusez da.
c) Deuseztagarria da.
d) Prozedura hasi behar da.

**15. Errektorearen ordez horretarako eskumena duen Unibertsitateko organoak sinatu izan balu ebazpena, zer errekurtso mota jar daitezke?**

a) Berraztertze-errekurtsoa.
b) Gorako errekurtsoa.
c) Ezin da errekurtsorik jarri, beti errektoreak ebatzi behar duelako.
d) Gorako errekurtsoa eta berraztertze-errekurtsoa.

**16. Zer organoren aurrean aurkez daiteke 15. galderan aipaturiko ebazpenaren aurkako errekurtsoa?**

a) Errektoretzaren aurrean, Unibertsitateko arduradun nagusia delako.
b) Gerentziaren aurrean, tasen inguruko gai ekonomikoa delako.
c) Ebazpena xedatu zuenaren goragoko organoaren aurrean.
d) Ikaslea matrikulatuta dagoen Ikastegiko Dekanotza edo Zuzendaritzaren aurrean.

**17. Zer epe dago 15. galderan aipatutako ebazpenari dagokion errekurtsoa aurkezteko?**

a) Hilabetekoa.
b) 30 egun baliodunekoa.
c) Hiru hilabetekoa.
d) Ez dago finkatutako eperik.

**18. 15. galderan aipaturiko ebazpenaren aurkako errekurtsoa ebazteko, Administrazioa:**

a) Errekurtsoa ebaztetik libre gera daiteke.
b) 30 eguneko epea du ebazteko.
c) Hiru hilabeteko gehienezko epean xedatu eta jakinaraziko du ebazpena.
d) 6 hilabeteko gehienezko epean ebatzi eta jakinarazi behar du.

**19. 15. galderako ebazpenaren aurkako errekurtsoa aurkaratutako egintza xedatu zuen organoari zuzentzeko aholkatu dio adiskide abokatuak. Zer izapide egin behar ditu organo horrek?**

a) Errekurtsoa ebatzi behar du abokatuak esan duelako.
b) Txostena egin beharko du, beste ezer ez.
c) Organo eskudunari igorriko dio.
d) Organo eskudunari txostena soilik igorriko dio.

**20. Adiskide abokatuak ez du ikaslearen ordezkaritza. Hark sinatzen badu errekurtsoa:**

a) Dokumentua beste izapiderik egin gabe artxibatuko da, ikaslearen ordezkaritza ez duelako.
b) Egintza gauzatutzat emango da, baldin eta ordezkaritza finkatutako epean egiaztatzen bada.
c) Ordezkaritza aurkeztu arte, errekurtsoa ez da aurkeztutzat emango.
d) Hilabeteko epea emango zaio ordezkaritza aurkeztu eta izapideak hasteko.

## ERRESERBAKO GALDERAK

**21. Ikasle horrek bezala, beste batzuek ere antzeko edukia duten eskaerak izapidetu dituzte eta organo eskudunak pilatzea erabaki du denak batera ebazteko. Zer errekurtso jar daiteke pilaketa-akordio horren aurka?**

a) Ezin da errekurtsorik jarri.
b) Gorako errekurtsoa.
c) Berraztertze-errekurtsoa.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**22. Zer eragiten du errekurtsogileak errekurtsoaren kalifikazioan errorea egiteak?**

a) Interesatuari itzultzea.
b) Interesatuari errore horren berri ematea, 10 eguneko epean zuzendu dezan.
c) Izapidetzea, baldin eta edukia kontuan hartuta bere benetako izaera ondorioztatu badaiteke.
d) Beste izapiderik egin gabe artxibatzea eta interesatuari horren berri ematea.

**23. Errekurtsoan ez bada adierazi administrazioko zer organo, zentro edo unitateri zuzenduta dagoen, zer egin behar du Administrazioak errekurtso horrekin?**

a) Beste izapiderik egin gabe artxibatu.
b) Organo eskuduna identifikatzen ahalegindu.
c) Organo eskudunari igorri.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

## GARRANTZITSUA:

1. **Erreserbako galderak ere erantzun egin behar dira.**
2. **Ezinbestekoa da egindako suposizio teorikoaren eredua eta aukera erantzunen orrian adieraztea. Egiazta ezazu!!!**

# 2. Aukera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak ikastegi berri batean eman nahi ditu Fisioterapia ikasketak 2011/2012 ikasturtean; hain zuzen ere, Arabako Campusean eraikitzeko asmoa duen Fisioterapiako Unibertsitate Eskolan. Horretarako, dagokion Memoria justifikatzailea egin du.

Helburu hori bete ahal izateko, eraikina prest edukitzeaz gain, Fisioterapiako ikasketa-plana onartu behar da. Halaber, bere garapena eta kudeaketa zainduko dituen gobernu-, ordezkaritza- eta administrazio-organoak izango ditu ikastegiak.

**1. Unibertsitateko zer organok du eskumena ikastegiaren sorrera onartzeko?**

a) Arabako Campuseko Batzarrak.
b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak.
c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak.
d) Unibertsitateko Klaustroak.

**2. Unibertsitateko zer organok egin behar dio Autonomia Erkidegoari ikastegia sortzeko eskaera?**

a) Arabako Campuseko Batzarrak.
b) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak.
c) UPV/EHUko Gizarte Kontseiluak.
d) Unibertsitateko Klaustroak.

**3. Eusko Jaurlaritzako zer sailek eman behar du ikastegia sortzeko baimena?**

a) Kulturakoak.
b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Teknologiakoak.
c) Unibertsitate gaietan eskumena duenak.
d) Zientzia eta Berrikuntzakoak.

**4. Legeria aplikagarriaren arabera eskatzen diren eskakizunez gain, honako hauek ere jaso behar dira Memorian:**

a) Lehen urterako aurreikusten den gastuaren justifikazioa.
b) Ikastegian irakaskuntza-jarduera izango dutela aurreikusten den Sailen zerrenda.
c) Egingo den ikastegirako sarbideak.
d) Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitate pribatu batean antzeko ikastegirik ez dagoela.

**5. Eraikina inbertsio eta azpiegituren urte anitzeko programaren kontura egingo da. Unibertsitateko aurrekontuko zer atali egotziko zaizkio gastuak?**

a) 2. atalari.
b) 3. atalari.
c) 4. atalari.
d) 6. atalari.

**6. Nork egindako araudiak arautuko du Fisioterapiako Unibertsitate Eskola?**

a) UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak.
b) Ikastegiko Batzarrak, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak xedatutako Araudi Esparruaren jarraibideei jarraituz.
c) Ikastegiko Zuzendaritza Taldeak.
d) Ez dago bere gobernua, administrazioa eta ordezkaritza arautuko dituen Araudia egin beharrik. Bere autonomia eta irizpidearen arabera hartzen dituen erabakien bidez arautuko da.

**7. Nork onartzen du ikastegi bateko barne-araudia?**

a) Zuzendaritza Kontseiluak.
b) Campuseko Batzarrak.
c) Gobernu Kontseiluak.
d) Ikastegiko Batzarrak.

**8. Ikasketa-planak egitea eta onartzea oinarrizko legeria aplikagarriari atxikita dago. Dena den:**

a) Beharrezkoa izango da Ikastegiko Batzarraren aurretiko txostena.
b) Beharrezkoa izango da UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren aurretiko txostena.
c) Beharrezkoa izango da Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiaztatzeko Agentziaren aurretiko txostena.
d) Beharrezkoa izango da Akademia Antolakuntzako Errektoreordetzaren aurretiko txostena.

**9. Nori dagokio, behin Unibertsitateak onartu eta gero eta titulua homologatu baino lehen, ikasketa-planei buruzko txostena egitea?**

a) Hezkuntza Ministerioari.
b) Gizarte Kontseiluari.
c) Unibertsitateko Klaustroari.
d) Unibertsitate gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailari.

**10. UPV/EHUren estatutuen arabera, noren egitekoa da irakasgaien oinarrizko programak dagozkien ikasketa-planen esparruan ezartzea?**

a) Ikastegiko Batzarrarena.
b) Campuseko Batzarrarena.
c) Akademia Antolakuntzako Ikasketen Errektoreordetzarena.
d) Saileko Kontseiluarena.

**11. Fisioterapiako Ikastegiko Batzarrean unibertsitateko hainbat sektorek izango dute ordezkaritza. Nori dagokio sektore bakoitzak Ikastegiko Batzarrean izan behar duen ordezkari-kopurua finkatzea?**

a) Dekano taldeari.
b) Ikastegiko Zuzendariari.
c) Ikastegiko araudiari.
d) Ikastegien Araudi Esparruari.

**12. Esan zein diren Fisioterapiako ikastegiaren gobernuko, ordezkaritzako eta administrazioko organoak.**

a) Ikastegiko Batzarra, zuzendaria, idazkari akademikoa eta zuzendariordeak.
b) Ikastegiko Batzarra, zuzendaria, idazkari akademikoa, zuzendariordeak eta administratzailea.
c) Ikastegiko Batzarra eta zuzendaria.
d) Aurreko erantzun bat bera ere ez da zuzena.

**13. Nork ezartzen ditu Fisioterapiako Unibertsitate Eskolako zuzendaria hautatzeko sistema eta prozedura?**

a) Euskal Unibertsitate Sistemaren 2/2004 Legeak, otsailaren 25ekoak.
b) Ikastegiko Araudiak.
c) Ikastegiko Estatutuek.
d) Arabako Campuseko Batzarrak.

**14. Ikastegiko zuzendaria, hala badagokio, irakaskuntza-betebeharretatik libre utzi ahal izango du:**

a) Erabat edo partzialki, errektoreak.
b) Erabat edo partzialki, Ikastegiko Batzarrak.
c) Erabat errektoreak eta partzialki Campuseko errektoreordeak.
d) UPV/EHUko estatutuek ez dute gertaera hori aurreikusten.

**15. Nork izendatzen ditu Eskolako zuzendariordeak?**

a) Errektoreak.
b) Campuseko errektoreordeak.
c) Ikastegiko zuzendariak.
d) Ikastegiko Batzarrak, zuzendariak proposatuta.

**16. Nor da Fisioterapia Ikastegiko idazkari akademikoa?**

a) Ikastegian irakasten dihardute sailen koordinatzailea.
b) Ikastegiko gobernu, ordezkaritza eta administrazioko kide anitzeko organoen egintza eta akordioen fede-emailea.
c) Ikastegiko idazkaritzako AZPren burua.
d) Ikasleen errektoreordetzari plazen mugak proposatzeko arduraduna.

**17. Zenbatean behin bilduko da Fisioterapiako Unibertsitate Eskolako Ikastegi Batzarra?**

a) Urtean behin, gutxienez.
b) Urtean bi aldiz, gutxienez.
c) Seihilekoan behin, gutxienez.
d) Seihilekoan bi aldiz, gutxienez.

**18. Zer lanaldi-erregimenetan gauzako dituzte euren egitekoak Fisioterapiako Unibertsitate Eskolako Irakasleek?**

a) Lanaldi partzialekoan eta, ahal izanez gero, lanaldi osokoan.
b) Arrunt eta osokoan.
c) Lanaldi osokoan soilik.
d) Ikastegiko idazkari akademikoak esleitutakoan.

**19. Administrazio eta zerbitzuetako pertsonala honako sistema hauen bitartez hauta daiteke:**

a) Sistema ireki eta itxiaren bitartez.
b) Zerbitzu-betekizunen eta izendapen askearen bitartez.
c) Kontratazioaren eta azpikontratazioaren bitartez.
d) Lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketaren bitartez.

**20. Nola hornituko dira funtzionarioentzat gordetako Fisioterapia Eskolako AZPko lanpostuak UPV/EHUren estatutuen arabera?**

a) Lehiaketa eta izendapen askeko sistemen bitartez hornituko dira, kasu bakoitzean Lanpostuen Zerrendak xedatutakoaren arabera.
b) Funtzionarioentzat gordetako lanpostuak beste Administrazio batzuetako pertsonal funtzionarioaren lekualdaketetarako lehiaketa-sistemen bitartez hornituko dira.
c) Izendapen askeko sistemaren bitartez beteko dira.
d) Urgentziazko premiak estaltzeko lan-poltsen bitartez hornituko dira.

## ERRESERBAKO GALDERAK

**21. Honako hauek osatzen dute Fisioterapia Eskolako unibertsitate-komunitatea:**

a) Irakasleek, ikertzaileek, ikasleek eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak.
b) Irakasleek, ikertzaileek eta ikasleek.
c) Irakasleek, ikertzaileek eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak.
d) Irakasleek, ikertzaileek, ikasleek, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak eta ikastegian zerbitzuak egiten dituzten kanpoko enpresek.

**22. Ikastegiko zuzendaria gaixotu egin da eta zuzendariorde batek hartu du haren tokia. Zenbat denbora iraun dezake egoera horrek hauteskundeak deitu gabe?**

a) Urte natural bat.
b) Ikasturte bat.
c) Sei hilabete.
d) Hiruhilekoa.

**23. Barne Kontroleko Unitatea UPV/EHUko administrazio-unitatea da, legezkotasun-, efikazia- eta efizientzia-printzipioen arabera gastu eta diru-sarreren kontrola bermatzen duena. Noren mende dago unitate hori?**

a) Mendekotasun zuzena du errektorearekiko eta autonomia funtzionala Gizarte Kontseiluarekiko.
b) Mendekotasun zuzena du UPV/EHUko gerentearekiko.
c) Mendekotasun zuzena du Kontuen Euskal Epaitegiarekiko.
d) Mendekotasun zuzena du errektorearekiko eta autonomia funtzionala gerentearekiko.

## GARRANTZITSUA:

1. **Erreserbako galderak ere erantzun egin behar dira.**
2. **Ezinbestekoa da egindako suposizio teorikoaren eredua eta aukera erantzunen orrian adieraztea. Egiazta ezazu!!!**

# 3. Aukera

**1- Arabako Campuseko Letren Fakultateko ikertzaile batek Dialneten aurkitu duen honako erreferentzia hau lokalizatu nahi du:**

Dialnet

Biblioteca de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Biblioteka

Erabiltzaile Pasahitza

Hasiera | Bilatu | Egileak | Aldizkariak | Tesiak | Aukeratzea | Erregistratu Euskara | Laguntza

TRANSFORMANDO EL CONFLICTO TRABAJO/FAMILIA EN INTERACCIÓN Y CONCILIACIÓN TRABAJO/FAMILIA

**Egileak:** Itziar Ugarteburu Gastañares, Javier Cerrato Allende, Roberto Ibarretxe Zorriketa
**Kokalekua:** Lan harremanak: Revista de relaciones laborales, ISSN 1575-7048, Nº 18, 2008 (Alearen gaia:: Empleo y cuidados familiares) , orri. 17-41

**Papyrusen honako informazio hau aurkitu du:**

1 de 1

**Amicus zenb.:** 872293
**Izenburu nagusia:** Lan harremanak : revista de relaciones laborales
**Gaiak:** Trabajo Publicaciones periódicas
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Publicaciones periódicas
Trabajo Publicaciones periódicas electrónicas
**Argit. data:** 1999
**Argitaletxea:** Bilbao: Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea
**ISSN/ISBN:** 1575-7048
**Erlazioak:**

| Amicus zenb.: | Erlazio mota: | Izenburua: |
|---|---|---|
| 872503 | Documento fuente | El tiempo de trabajo = Lan-denbora. |
| 931296 | Documento fuente | El trabajo en el S. XXI = Lana XXI. mendean. |
| 1077276 | Publicado con | Relación productiva y articulación de la producción = ekoizpen harremana eta ekoizpenaren artikulazioa. |
| 1221276 | Publicado con | El debate sobre la dependencia = Dependentziaren inguruko eztabaida. |

**URL:** Acceso Electrónico

**Nola lor dezake erreferentzia?**

a) Erabiltzailea Bizkaiko Campuseko liburutegi batera joan eta maileguan hartuta.
b) Ikastegien arteko maileguaren bitartez eskatu eta argitalpena Letren Fakultatera postaz bidalita.
c) Erabiltzaileak Interneten kontsulta eginda.
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**2- Erabiltzaile batek laguntza eskatu digu honako dokumentu hau lokalizatzeko eta maileguz hartzeko:**

1 de 1 ☐ Ikusi MARC

| | |
|---|---|
| **Amicus zenb.:** | 1275339 |
| **Egileak:** | Ronald, Pamela, coed.<br>Hawes, Martha, coed. |
| **Izenburu nagusia:** | Focus issue on plant interactions with bacterial pathogens / |
| **Gaiak:** | Bacterias fitopatógenas<br>Plantas |
| **Argitaletxea:** | Rockville, Maryland: American Society of Plant Biologists |
| **Argit. data:** | 2009 |
| **Deskribapena:** | Pp. 801-1454 :il. |
| **Egilearen gaineko oharra:** | Martha Hawes and Pamela Ronald, editors |
| **Ohar orokorra:** | En: "Plant Physiology", vol. 150, no 4 (August 2009). BceI 581(05) PLA |
| **SHU** | 632.35 |
| **Erlazioak:** | |

| Amicus zenb.: | Erlazio mota: | Izenburua: |
|---|---|---|
| 9977 | Publicado con | Plant physiology. |

**Zer adierazi beharko diogu?**

a) Apalategietan aurkituko duela gainerako liburuekin batera eta normaltasunez har dezakeela maileguz.
b) Aldizkarien artean ordenatuta aurkituko duela eta aretoan soilik kontsultatu ahal izango duela.
c) Apalategietan aurkituko duela gainerako liburuekin batera baina aretoan soilik kontsultatu ahal izango duela.
d) Aldizkarien artean ordenatuta aurkituko duela eta ohikoa baino aldi laburragorako har dezakeela maileguz.

**3-** **Unibertsitateko liburutegiko erabiltzaile batek honako erreferentzia hau lokalizatu nahi du. Zein da <u>modurik eraginkorrena eta zarata gutxien ateratzen duena</u> aldizkako argitalpena Papyrusen lokalizatzeko izenburu laburtua soilik jakinda?**




a) Papyruseko ALDIZKARIAK aukeran izenburu laburtua tekleatzea.
b) HAINBAT HITZEKIN BILATU aukeran, *komodinaren moztutako terminoak "izenburuko edozein hitz" aukeran erabilita, "Y" operadore boolearrekin konbinatuta eta bilaketa aldizkarien azpikatalogoa mugatua.
c) BILAKETA AZKARREKO laukietan * komodinarekin moztutako izenburuko bi elementu tekleatuta.
d) ALDIZKARIAK aukeran B letraz hasten diren aldizkari guztien zerrenda bistaratuta eta laburdurekin bat datorren izenburuko aldizkariak lokalizatu arte orrialdeak pasatuta.

**4-** **Erabiltzaile batek jakin nahi du ea Unibertsitateko liburutegiak "British Journal of Clinical Psychology" argitalpenerako sarbide elektronikoa duen. Non egin dezake kontsulta?**

a) Bere ikastegiko idazkaritzan.
b) Unibertsitateko liburutegiko katalogoan.
c) Unibertsitateko liburutegiko web-orriaren Baliabide Elektronikoen aukeran.
d) b) eta c) erantzun zuzenak dira.

**5- Aurreko erabiltzaileak British Journal of Clinical Psychology aldizkariko 2004ko ale batean argitaratutako artikulu bat kontsultatu nahi du eta liburutegiko web-orriko AZ Baliabide Elektronikoak aukeran aurkitu du informazioa. Zer atariren bitartez lokaliza dezake artikulua?**


British Journal of Clinical Psychology
E-Journals from EBSCO 1/1/2001 - 12/31/2005
ProQuest Central 1998 - 2006
SwetsWise FullText Titles 2006 hasta el presente
ISSN: 0144-6657
Editor: British Psychological Society
Materia: Psicología -- Psicología

a) E- Jounals from EBSCO
b) ProQuest Central edo E- Jounals from EBSCO
c) ProQuest Central edo SwetsWise FullText Titles
d) Aurreko hiru erantzunetako edozein da baliagarria.

**6- Erabiltzaile batek Leonardo da Vinci lokalizatu nahi du Papyrusen. Kultura Ministerioaren Katalogazio Arauen arabera, zein da Papyrusen KATALOGOA AZTERTU aukeran erabiltzaileak tekleatu beharko lukeen pertsonentzako goiburuaren forma egokia?**

a) Leonardo da Vinci.
b) Vinci, Leonardo da.
c) Da Vinci, Leonardo.
d) 3 aukerak egokiak dira, baldin eta “egilearen edozein hitz” aukera erabiltzen badugu.

**7- Zein da SHUko honako notazio honetako laguntzaileak ordenatzeko forma gomendatua?**

a) 75 ”17/18” (083.824) (460)
b) 75 (460) “17/18” (083.824)
c) 75 (083.824) ”17/18” (460)
d) 75 (460) (083.824) “17/18”

**8- Irakasle bat Papyrus bidez maileguz hartu duen monografia bat berritu nahian dabil baina, lortu ezin duenez, telefonoz deitu du liburutegira zer gertatzen den jakiteko.**

a) Berritu nahi duen liburua beste erabiltzaile batek erreserbatu du.
b) Maileguaren mugaeguna igaro da eta ezin du berritu.
c) Irakasleek ezin dituzte maileguak berritu Papyrusen bitartez.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**9- Arabako Campuseko Letren Fakultateko ikertzaile bat Leioako liburutegi nagusira joan da eta DVD bat mailegu mota MUGATUAN etxera eraman dezakeen galdetu du. Zer erantzun behar diogu?**

a) Ikertzaileek ezin dituzte material mugatuak etxera eraman.
b) Ez dago arazorik maileguz emateko; izan ere, Unibertsitateko liburutegiko edozein erabiltzailek eraman ditzake dokumentuak mailegatuta edozein zerbitzu-puntutatik.
c) Maileguz emango diogu baina Papyrus bitartez Arabako Campuseko liburutegira bidaltzea eska zezakeela ere jakinaraziko diogu.
d) Ikertzaileek euren liburutegi-txartelari esleitutako zerbitzu-puntuko dokumentuak soilik eraman ditzakete etxera mailegatuta; gainerakorako ikastegien arteko mailegu-zerbitzua erabili behar dute.

**10) Erabiltzaile batek Papyrusen egindako bilaketen historiala gorde nahi du etxetik lanean jarraitzeko eta nola egin behar duen galdetu digu. Zer erantzungo diogu?**

a) Papyrusen zure LOGINarekin identifikatu bazara, bilaketaren historia gorde egin daiteke eta hurrengo saioa hastean berreskuratu.
b) Ezinezkoa da, bilaketa-historiala konexioa itxi bezain laster galtzen da.
c) Bilaketa-historiala zure helbide elektronikora bidal daiteke.
d) Testu-fitxategi batean edo html fitxategi batean deskarga dezakezu eta zure ordenagailuan ireki.

**11) Matematikako ikasle batek "Geometria afina eta topologia" irakasgaiko irakasleak gomendatutako bibliografiarekin osatu nahi ditu apunteak, baina bibliografia ageri den irakasgaiaren programa ekartzea ahaztu zaio. Lagun al diezaiokegu aurkitzen?**

a) Ez, jakineko izenburu edo egileren bat ezagutu behar da bilaketa egiteko.
b) Papyrusen ESKURATZE BERRIAK aukera erabil dezake interesatzen zaion gaiarekin zerikusia duen berritasunen bat aurkitzeko katalogoan.
c) Balio diezaiokeen libururen bat aurkitzeko gaikako bilaketa egiteko esan behar diogu.
d) Papyrusen IRAKASLEEN BIBLIOGRAFIA aukera erabiliz egin dezake bilaketa.

**12) Kode-segida hauetatik zein dago ondo ordenatuta?**

a) 316.65 CON , 316.651 ABA , 316.775 LIB , 316.77(460) CON , 316.77(460) "17/18" JOR
b) 327 "18" LIB , 327 "18/19" AUS , 327 "1939/1945"BET , 327(469) MET, 327(460) MOR
c) 330.322.1 LUS , 330.322.2 VIT , 330.322.3 JUM , 330.322.3:37 MOR , 330.322.16 JUS
d) 35.07 MOR , 35.073 VIT , 35.08 LOT, 35.08(091) JUA , 35.08(460) MOY , 35.08(460)(058) ANU

**13) Lehen mailako ikasle batek liburu bat behar du, baina bere liburutegian ez dago liburu horren ale erabilgarririk. Zer egin behar du?**

a) Maileguen mostradorean ohar bat utzi, ale bat itzultzen dutenean berarentzat gorde dezaten.
b) Katalogoan bere loginarekin identifikatu, liburua bilatu eta bere liburutegiko aleak bistaratzen dituenean, bat erreserbatu.
c) Katalogoan bere loginarekin identifikatu, liburua bilatu eta aleak bistaratzen dituenean Unibertsitateko liburutegiaren beste sukurtsal batean erabilgarri dagoen ale bat eskatu ikastegi arteko maileguaren bitartez.
d) Katalogoan bere loginarekin identifikatu eta liburutegi arteko mailegu-inprimakiaren bitartez ale bat eskatu REBIUN sareko beste Unibertsitate liburutegiren bati.

**14) Papyrusen HAINBAT HITZEKIN BILATU aukeran erabil al dezakegu nazioarteko zenbaki normalizatuko indizeren bat liburu bat bilatzeko?**

a) Ez, Papyrusek ez du onartzen zenbaki-formatuko bilaketarik.
b) Bai, ISBD.
c) Bai, ISBN.
d) Bai, ISBG.

**15) Ikasle bat liburu baten mailegua berritzen ahalegindu da Papyrus bitartez baina ezin izan du. Zein izan daiteke arrazoia?**

a) Liburu horren edo beste baten maileguaren mugaeguna gainditu da eta ez dio uzten mailegua berritzen.
b) Berritu nahi duen liburua beste erabiltzaile batek erreserbatu du.
c) Internet bidezko hiru berrikuntzaren muga gainditu du.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**16) Erabiltzaile bat liburu bat irakurtzen ari zen eta atentzioa eman dioten oharrak ikusi ditu oin-orrian. Hirugarren tokian ageri den erreferentzia aurkitzeko interesa du eta izenburua nola lokaliza dezakeen galdetu digu. Zer erantzungo diogu?**

[1] FRAMPTON, Kenneth. Historia crítica de la arquitectura moderna. 10 ed. Barcelona : Gustavo Gili S.A., 2000. p. 95

[2] BAKER, Geoffrey Harold. Le corbusier : análisis de la forma. Barcelona : Gustavo Gili S.A, 2000. p. 208

[3] FRAMPTON, Op. cit., p. 96

a) Papyrusen ezin dira bilatu izenburu laburtuak. Horregatik, “Op. Cit.” laburdurarekin zer aldizkari-izenburu dagoen adierazita jakin behar du.
b) “Historia crítica de la arquitectura moderna” da bilatu behar duen izenburua.
c) “Le Corbusier: análisis de la forma” da bilatu behar duen izenburua.
d) Oin-orrian hutsegitea dago eta hirugarren erreferentziaren aipua gaizki egin du egileak.

**17) Zein dira Papyrusen identifikatzeko erabiltzaileek lehen aldiz erabili beharreko erabiltzailea eta pasahitza?**

a) Ikasketen espedientearen zenbakia.
b) Unibertsitateak emandako posta elektronikoaren erabiltzailea eta pasahitza.
c) Liburutegiko arduradunak emandakoak.
d) NAN zenbakia letrarik gabe.

**18) Erabiltzaileak bilaketa egin du Papyrusen eta 600 erregistro baino gehiago lortu ditu. Bere ikastegiko liburutegian aurki ditzakeenak soilik interesatzen bazaizkio, zer egin behar du?**

a) Erregistroak banan-banan berrikustea eta interesatzen zaion kokalekuari dagozkionak hautatzea da aukera bakarra.
b) BILAKETA AZKARRA aukeran bilaketa planteatu eta liburutegikako mugatzailea erabiltzea.
c) HAINBAT HITZEKIN BILATU aukeran bilaketa planteatu eta liburutegikako mugatzailea erabiltzea.
d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**19) Zer dira Papyrusen urdinez nabarmenduta eta azpimarratuta ageri diren elementuak?**

a) Fitxa katalografikoko gaien goiburukoak.
b) Hiperestekak.
c) Metadatuak.
d) Ex libris.

**20) Ikasle bat 3 egun atzeratu da oinarrizko bibliografiako 2 liburu itzultzeko orduan. Zer isun edo zehapen ezarriko dio liburutegiak?**

a) Mailegu-zerbitzurik gabe utziko du hilabetez.
b) Bi liburu berrien prezioa ordaindu beharko dio liburutegiari.
c) Mailegu-zerbitzurik gabe utziko du 6 egunez.
d) Mailegu-zerbitzurik gabe utziko du 12 egunez.

ERRESERBAKO GALDERAK

**21) Bilboko Enpresa Zientzien Eskolako (1. Zikloko) ikasle batek interesatzen zaizkion hainbat liburu aurkitu ditu katalogoan, Ekonomia Zientzien Fakultateko apalategietan soilik daudenak. Nola lor ditzakeen galdetu digu. Zer erantzungo diogu?**

a) Bere loginarekin Papyrusen identifikatuta eska dezake alea eta Enpresa Zientzien Eskolara bidaliko diote ikastegi arteko mailegu-zerbitzuaren bitartez.
b) Ekonomia Zientzien Fakultatean zuzenean har ditzake maileguz.
c) Ekonomia Zientzien Fakultatean kontsulta ditzake baina ezin ditu maileguz hartuta eraman ez delako berari dagokion zerbitzu-puntua.
d) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

**22) Erabiltzaile batek pare bat liburu hartu nahi ditu maileguz. Aurreko astean hainbat liburu eraman zituen baina ez du gogoratzen zenbat. Non galde dezake?**

a) Idazkaritza Birtualean bere loginarekin identifikatuta eta LIBURUTEGIA aukeran sartuta.
b) Papyrusen bere loginarekin identifikatuta eta ERABILTZAILEAREN INFORMAZIOAN “Gaur egungo maileguak” aukeran sartuta.
c) Liburutegiko web-orrian, bere loginarekin identifikatu behar den NIRE ERABILTZAILE ERREGISTROA aukeran.
d) Jendearentzako Zerbitzuen arduradunari posta elektronikoz informazioa eskatuta. Horretarako, bere liburutegi-txartelaren zenbakia eman behar dio.

**23) Erabiltzaile batek ostiral bateko 23:30ean Arabako Campuseko liburutegiaren larunbateko irekiera-ordutegia jakin nahi du. Nola lor dezake informazioa?**

a) Une horretan Arabako Campuseko liburutegira telefonoz deituta.
b) Teletestuaren bitartez.
c) 112ra deituta.
d) Papyrusen, Bibliotekari Buruzko Informazioa aukeran sartuta.

## GARRANTZITSUA:

**1 Erreserbako galderak ere erantzun egin behar dira.**
**2 Ezinbestekoa da egindako suposizio teorikoaren eredua eta aukera erantzunen orrian adieraztea. Egiazta ezazu!!!**

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

**Bolsa de trabajo de Administrativos / Administariak izeneko lan poltsa**
**Hoja de respuestas / Erantzun orria**
**Supuestos Prácticos / Kasu Praktikoak**

| Nº / Zbk. | MODELO A EREDUA | | | MODELO B EREDUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Opción / Aukera: 1 | Opción / Aukera: 2 | Opción / Aukera: 3 | Opción / Aukera: 1 | Opción / Aukera: 2 | Opción / Aukera: 3 |
| | Respuesta Erantzuna | Respuesta Erantzuna | Respuesta Erantzuna | Respuesta Erantzuna | Respuesta Erantzuna | Respuesta Erantzuna |
| 1 | C | B | C | D | D | A |
| 2 | C | C | B | B | B | D |
| 3 | D | C | B | C | D | C |
| 4 | D | B | D | B | A | D |
| 5 | C | D | B | D | D | C |
| 6 | C | B | A | B | C | C |
| 7 | D | C | B | C | D | A |
| 8 | B | C | C | D | A | D |
| 9 | C | D | A | A | B | D |
| 10 | C | D | B | D | A | A |
| 11 | B | C | D | C | B | B |
| 12 | C | B | D | A | C | B |
| 13 | A | B | B | C | D | C |
| 14 | C | A | C | B | B | B |
| 15 | B | A | D | C | C | D |
| 16 | C | B | B | D | C | C |
| 17 | A | D | D | B | B | A |
| 18 | C | A | C | D | B | B |
| 19 | C | D | B | B | A | C |
| 20 | B | A | D | C | B | A |
| 21 | A | A | B | A | C | A |
| 22 | C | C | B | B | B | D |
| 23 | D | D | D | D | A | C |